

hh
hik hasi

181



**ETXERAKO LANAK • CRISTINA URIARTE • 0-3 ZIKLKOKO HEZITZAILEEN
FORMAZIOA • SEMENTE, GALIZIERAZKO HAUR ESKOLA • ELKARBIZITZA
HOBETZEKO PROIEKTUA • ALFREDO HOYUELOS • IMANOL UBEDA**

TURE
GORPUTZA
EZAGUTUZ

+2

BILUZIK



PUPU eta LORE

ZILIPURDIKA



MARIMOTOTS

ERREKAN



PIRRITX

TITIA EMATEN



PORROTX

ISPILUAN



PLAZA-IPUINAK

+4

TAULA
GAINAKO
ABENTURAK
IPUINETAN

PUPU eta LORE
eta MARIMOTOTS

MAITE ZAITUTI



PUPU eta LORE
eta MARIMOTOTS

ZAZPIKOLOROA



aurkibidea



10
gaia

ETXERAKO LANAK

Askok erabiltzen dira etxerako lanak, baina gutxi ikertu izan dira. Joxe Amiak doktore-tesia egin berri du gaiaz, familia-
ren eta eskolaren arteko lotura direlako, alde batetik; eta, bes-
tetik, sarri gatazka-iturri bihurtzen direlako. Adituak dio, egin-
behar hauek baliagarriak direla, funtzioaz, kopuruaz eta den-
boraz hausnarturiko baliabide gisa erabiltzen badira.



16
elkarrizketa

CRISTINA URIARTE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bikaintasuna du helburu.
Baina ez da xede bakarra, gizartea elebitasun errealerako bide-
an jarri nahi du; baita lege propio berri baterako bidea egitea
ere... beti ere adostasun zabala makulu harturik. "Hau guztia
egiteko eragile guztien adostasunarekin egingo dugu", esan du
elkarrizketan Uriartek.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ETXERAKO LANAK Neurtuta eta mugatuta erabili
beharreko baliabideak

18 elkarrizketa

CRISTINA URIARTE Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Sailburua

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

28 esperientziak

SEMENTE: Galiziako eskola nazionalaren lehen hazia

32 esperientziak

Eskolako elkarbizitza hobetzeko proiektua, Txilen.

34 galdeidazue

Zer garrantzia dauka familiaren partaidetzak haur
eskolan? ALFREDO HOYUELOS

40 hik hasi-ren proposamena

'Do, Re, Ni' Piano doinuak eta jolasa uztartuz, haurrek musika
bizitzea xede

42 Atzeko atetik IMANOL UBEDA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2013-09-26). Kopurua: 4.200 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Eman diezaiogun hezkuntzari **garrantzia**



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta argitararaten
ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala urria

LOMCE ez! Euskal Herrian, gure hezkuntza eraiki!

hik hasi egitasmo pedagogikoak bat egiten du LOMCE hezkuntza-erreformaren aurkako agiri honekin, eta deia egiten die hezkuntza komunitate osoari eta euskal herritarrei urriaren 12an Bilbon Werten erreformaren aurka eta euskal hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko egingo den manifestaziora:

Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienok, ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkarte eta erakundek argi adierazi dugu azken hilabete luzeetan Wert hezkuntza ministroak inposatu nahi duen LOMCE hezkuntza-erreformarekiko gure aurkakotasuna. Zentralizatzailea, adoktrinatzailea, uniformatzailea, atzerakoia, segregatzailea eta elitista den lege hau bertan behera uztea exijitzen dugu eta inola ere ez dugu onartzen Euskal Herrian inposa dadin.

Hau honela, ekainean aurreratu moduan, hezkuntza-komunitate osoari eta euskal herritarrei dei egiten diegu urriaren 12an Bilboko ka-

leak betetzera LOMCEri gure aurkakotasuna adierazi eta aurre egiteko eta hezkuntza-sistema propioa aldarrikatzeko.


Mobilizazio honen bidez, gure desadostasuna agertzeaz gain, Euskal Herriko alderdi politikoei eta Nafarroa eta EAeko legebiltzar eta gobernuei eskatzen diegu LOMCEa gure herriko ikastetxeetan inola ere ez dezatela aplikatu eta horretarako bitarteko guztiak erabil ditzatela. Modu berean, hezkuntza eragileok gure konpromisoa berresten dugu LOMCEri aurre egin eta gure herrian aplikatu ez dadin estrategia amankomunak lantzeko.

Bestalde, azken hamarkada lu-

zeetako bideari jarraituz, hezkuntzako eragile ezberdinok, eraso hauei guztiei aurre egin eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntzari erantzungo dion hezkuntza sistema propioa eraikitze bidean pauso berriak emateko gure konpromisoa adierazi nahi dugu.

Honegatik guztiagatik, dei berezia egiten diegu ikasle, familia, hezkuntzako langile eta herritar orori datorren urriaren 12an, arratsaldeko 17:30ean Jesusen Bihotzetik abiatuta, Bilboko kaleak bete eta ozen esan dezagun.

EUSKAL HERRIAN, GURE HEZKUNTZA ERAIKI! LOMCE EZ!



“Euskal Eskolak eta Herrigintzak, batera bidea egin behar dutela uste dugunok ezin dezakegu ‘hezkuntza sistema propioa’ aldarrikatu, berori lortzeko ‘ahalmen politikoa’ eskuratzen eta erabiltzen lankidetzari uko eginez”

Iñaki Etxezarreta (1998)

hizpide



Itunpeko eskolek 1998tik egin dituzten mobilizazio handienak egin dituzte, murrizketen aurka

Kristau Eskola eta IZEA patronalen murrizketen aurka mobilizazioak hasi dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako itunpeko 200 ikastetxe bako bako gehiagok. CCOO, EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuek —negoziazio mahaian ordezkariak duten guztiek— 12.000 langile deitu dituzte 2010eko maiatzean hasitako gatazka-ri aurre egitera.

Lehen protesta irailaren 26an egin zuten, egun osoko lanuztearekin, eta emaitzarik lortu ez zuten, bi mobilizazio aste egingo dituzte aurki: urriaren 21etik 25era, eta azaroaren 25etik 29ra. Horrez gain, ikastetxe bako-

tzak bere ekimenak martxan jartzeko aukera ere izan dezakeela ohartarazi dute.

Itunpeko sarearen barruan, Kristau Eskola eta IZEA patronalek kudeatutako ikastetxeetan egingo dituzte protestak. Mobilizazioen bidez, lan ituna negoziatzera eta mozketak bertan behera uztera bultzatu nahi dituzte Kristau Eskola eta IZEA. Besteak beste, % 2 eta % 5 arteko soldata murrizketak izan dituzte, erabaki horien aurka helegitea jarri zuten eta Espainiako Auzitegi Gorenak arrazoieman zien, baina patronalak epaia betetze-ari uko egin dio.

500.000 ikaslerekin hasi da ikasturtea Euskal Herrian

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, unibertsitatez kanpoko 364.090 ikasle hasi dute ikasturtea, iaz baino % 0,94 gehiagok. Hizkuntza eredu edidagokienez, D ereduak gora egin du aurreko urteetan bezala. Hala, ikasleen % 60 D ereduari matrikulatu dira; % 22, B ereduari; eta % 18, A ereduari. Ikasle kopuruak gora egin duenez, 110 irakasle gehiago ariko dira aurten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan. Gela bakoitzeko ikasle ratioa berriz, berdin mantenduko da ikasturte honetan, baita irakasleen eskola ordutegia ere.

Hendaiako eta Beskoitzeko ikasletoen etorkizuna zalantzan dagoen arren, Ipar Euskal Herrian ere gora egin du euskaraz ikasiko duten ikasleen kopuruak eta Seaskak iaz baino 124 ikasle gehiagorekin ekin dio ikasturteari: 3.083 ikasle hasi dira irailean, eta urtarrilean, 2 urteko haurrak hasien direnean, 3.143 ikasle izango direla aurreikusten dute.

Azkenik, Nafarroan, unibertsitatez kanpoko 105.000 ikasle inguruk hasi dute 2013-2014 ikasturtea pasaden irailean. Hizkuntza ereduari dagokionez, Ingeles programak hedatzea da Gobernuaren lehentasuna. 3-12 urte bitarteko umeak dituzten 50 eskola ari dira parte hartze programa horretan.

izan da

Hendaiako eta Beskoitzeko ikastolak ez eraikitzeke agindu dute Paueko Auzitegiak eta Baionako suprefetak

Hendaiako Udalak bertan behera utzi beharko du Seaskaren ikastola eraikitzeke egitasmoa eta ezingo du lanik egin. Izan ere, Paueko auzitegiak ontzat jo du Lionel Beeffre Paueko prefetak ezarritako helegitea eta Hendaiako Herriko Etxearen erabakia indargabetu du. Estatuko ordezkariak bi aldiz jo du Hendaiako Herriko Etxeak ikastola eraikitzeke har-

tutako erabakiaren aurka, legez kanpoko delat iritzita. *Falloux legeak* debekatu egiten du diru publikoa hezkuntza pribatuko egoitzak diruz laguntzeko erabiltzea, eta laikoa izan arren, Seaskaren murgiltze-eredua arlo pribatuari dagokiola argudiatu du prefetak.

Batetik, ikastola berria eraikitzea baimentzen zuen erabakia indargabetu du epaileak; eta bestetik, auzibi-

deak iraungo duen bitartean lanak debekatzeko agindu du.

Hendaiakoari bezala, Beskoitzeko Udalarari ere ikastola ez egiteko agindua iritsi zaio, Seaskari egoitza publiko bat emateko asmoa bertan behera uzteko eskatu baitio Baionako suprefetak Herriko Etxeari. Ikastola hori aurten ireki dute eta Seaskako 31.a izan da. Suprefetaren aginduari jarraikiz, ordea, Herriko Etxeak ezin dio egoitza publikorik utzi edo eskaini Seaskari. *Falloux legea* indarrean dagoela eta auzitara jotzeko mehatxua egin die, gainera.

Guraso eta ikasleen protesten ondotik, Ibaiondo eskola alboko antena bat kentzeko agindu du Gasteizko Udalak

Ibaiondo eskolako guraso eta ikasleek protesta egin zuten lehen eskola-egunean ikastetxe ondoan dagoen antena batek igortzen duen kutsadura elektromagnetiko handiegia ikasleentzat kaltegarria izan daitekeela salatuz. Antena Lakua hotelaren gainean dago eta ez du Udalak emandako araudia betetzen. Horregatik, Gasteizko Udalak Orange telefono konpainiari agindu dio antena hori kentzeko. Enpresak egiten ez bada, Udaleko langileak joango dira kentzera.

Gurasoak kezkatuta daude antena horren irradiazioak ikasleengan izan dezakeen eraginarekin. Zenti-

mento koadroko 3,2 mikrowatteko neurketak egin izan dituzte eskolan eta onartutako muga 0,1ean dago. Beraz, Ibaiondoko neurketek segurua den irradiazio maila 32 aldiz gainditzen dute.

Udalak neurriak hartu ostean, % 75 gutxitu ziren antenaren emisioak eta klasera itzultzea erabaki zuten guraso eta ikasleek, baina hainbat neurri hartuta: jolaslekuaren zati bat ez dute erabiltzen Haur Hezkuntzako ikasleek, eta ikasgela batzuk ere ez dituzte erabiltzen haurrak irradiazioetatik babesteko. Orangeren antena kenduta emisioak jaitziko diren esperantza dute gurasoek.

Behin-behineko irakasleak ari da hartzen Nafarroako Gobernuak, ordukako kontratuekin

Nafarroako Gobernuak azken urteetan askoz irakasle gutxiago hartu ditu, guztira 700 gutxiago. Horren ondorioz, irakasleei eskola-orduak gehitu dizkiete eta ratioak handitu dituzte. Aurtengo ikasturterako, ordea, ikasle kopurua hazi denez, 330 irakasle hartuko ditu, baina behin-behineko eta ordukako kontratuekin.

Neurri horrekin enplegua sortuko dela eta irakasleak gehituko direla esan du Nafarroako Gobernuak, baina sindikatuek ohartarazi dute ez dela kalitatezko enplegua izango eta horrek hezkuntzaren beraren kalitatean ere eragingo duela.

hizpide



HH eta LHko irakasleentzako gitarra ikastaroa

Bosgarren urtez jarraian, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ariko diren irakasleentzako gitarra ikastaroa antolatu du Xirula Mirulak. Ezertxo ere ez dakiten irakasleentzako saioak izango dira, eta helburua, ikastaro amaieran eskola-giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea.

Urriaren 18an hasita, eskolak ostiraletan izango dira 18:00etatik 19:30era, eta ikastaroa ekaineko lehen ostiraletan amaituko da. Donostiako Amara auzoan (Catalina Erauso, 12) izango dira eskolak.

Ikastaro osoa 220 euro kostako da eta ikasle zein langabetuei prezio bereziak egingo zaizkie. Matrikulazio-epela irekita dago jada. Izena emateko 943 463555 telefono zenbakira deituedo xirula@euskalnet.net helbidera idatzi behar da.

Hainbat jardunaldi eta ikastaro *hik hasi*-ren eskutik

"ESKOLAren eta FAMILIAren arteko harremanak, haurren garapen osorako lagungarri" jardunaldia egingo da urriaren 18an Durangon eta 19an Donostian. Euskal Herriko hainbat esperientzia erakusteaz gain, Argentinako Myrtha Chokler eta Kataluniako Elia Martinez izango dira bertan. Matrikulazioa irekita dago urriaren 13ra arte *hik hasi*-ren webgunean.

Horrez gain, azarotik martxora bitartean bi ikastaro antolatu ditu *hik hasi*-k: batetik, Urko Arozena Musikeneko perkusio irakasleak emango duen "Ametsak eta entrenamendu mentala zoriontsu izateko" ikastaroa; eta bestetik, Marina Pintos piano jotzaile, musika irakasle eta yoga irakasleak emango duen "Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan". Hernaniko Langile ikastolan egingo dira biak eta matrikulazioa irekita dago jada. Informazio gehiago eskuratu edota izena eman nahi duenak www.hikhasi.com webgunera jo dezake.

25. urteurrenean, Ikasle Eguna azkeneko aldiz ospatuko du IAK

Ikasle Abertzaleak antolakundeak 25 urte beteko ditu eta urteurrenak ospakizunekin batera aldaketak ekarri ditu erakundera. Azaroaren 16an egingo duten "Azken Ikasle Dantza" ekitaldiarekin urteroko Ikasle Eguna ospatzeari utziko dio IAK. Izan ere, halako ospakizun bat prestatzeak denbora eta indar handia eskatzen die IAKo kideei, eta, eragile sozial eta politikoa gisa, baliabide horiek beste egitasmo batzuetara bideratu nahi dituzte.

IAren 25. urteurrena gogoratzeko baliatuko dute azaroaren 16ko ekitaldia eta lehengo nahiz oraingo ikasle esperientziak izango dituzte bertan.

Horrez gain, 25 urtetako soinu banda disko batean bildu dute. 11 Ikasle Egunetarako berariaz sortutako abestiak hartu, eta horien bertsioak egiteko eskatu diete beste horrenbeste talderi. Horri gehitu behar zaio IAKo bi kide ohik ondutako poema musikatua: *Egin gaitu iraultzak*. Baita 25. urteurrenerako Gose taldeak sortu berri duen kanta ere: *25. urteurrena*. Abestiaren muinean *A revolution is the solution* leloa dago, hezkuntzaren arloko iraultza aldarrikatzeko.

Ospakizunaren harira, bideoklipa ere egin du Mikel Clementek IAren 25 urteak gogoratzeko.

izango da

Urriaren 12an, hezkuntza-arloko manifestazioa Bilbon

“LOMCE ez! Euskal Herrian
gure hezkuntza eraiki” lemapean
Euskal Herriko hainbat
hezkuntza eragilek deituta,
LOMCEren aurkako
manifestazioa egingo da urriaren
12an Bilbon, 17:30ean Jesusen
Bihotzetik abiatuta. Hauexek
daude deitzaileen artean: UEU,
Ikastolen Elkartea, EHIGE,
Sortzen-Ikasbatuaz, Ikasle
Abertzaleak, NIZE, BIHE, Sarean,
ELA, LAB, STEE-EILAS eta
Hik Hasi

Psikomotrizitateari buruzko jardunaldiak

Luzaro psikomotrizitate-
eskolak eta UNED Bergarak
antolatuta, XI Psikomotrizitate
praktikari buruzko jardunaldiak
egingo dira azaroaren 8, 9 eta
10ean Gasteizko Europa
Jauregian. Izena emateko epea
urriaren 31 arte dago irekita eta
Internet bidez egin daiteke
www.uned.es/ca-bergara orrian.

*Euskal Herrian
gure hezkuntza eraiki!*



LOMCEri EZ!

Urriak 12

MANIFESTAZIO NAZIONALA BILBO

17:30tan Jesusen Bihotzetik

GAIA

Etxerako lanak

*Neurtuta eta mugatuta
erabili beharreko baliabideak*





**Ikastetxe gehien-gehienek
ikaragarri erabiltzen dituzte
etxerako lanak, baina gutxi
hausnartu dute baliabide horien
erabileraz eta funtzioaz.**

**Joxe Amiama EHUko irakasleak
gaia ikertu du bere doktoretza-
tesian, familiaren eta eskolaren
arteko lotura aztertzeko bide gisa.
Ikasketa-prozesuan laguntzen
duten baliabide izan daitezkeela
dio ikerlariak, baina baita
gatazka-iturri ere. Gaur egun
etxerako lanei loturiko errealitatea
nolakoa den ezagutzera eman du
DBHko 723 ikasleren,
454 familiaren eta 251 irakasleren
iritziak jasota.**

G

Amiamak tesian ikertu du etxerako lanen erabilera eta funtzioa

Arratsaldeko 7etan ume bat etxean badago eta etxerako lanak egin behar baditu, etxerako ordua ala eskolako da? Horixe da etxerako lanek dakarten dilemetako bat. Ikasketa-prozesuan laguntzen duten baliabide izan daitezke, baina baita gatazka-iturri ere. Asko erabiltzen dira etxerako lanak, baina gutxi ikertu eta ebaluatu izan dira. Joxe Amiamak doktore-tesia egin berri du gaiaz, eta iragan uztailean defendatu zuen, *Análisis de los deberes escolares en la ESO y exploración de un espacio colaborativo entre profesorado y familias en la Comunidad Autónoma Vasca* izenburupean.

EHUko Gizarte Zientzien Fakultateko Didaktika Saileko irakasleari etxerako lanen gaia zergatik aukeratu duen galdetu zaionean, bi sistemen (eskolaren eta familiaren) arteko lotura eta, era berean, gatazka-iturri izan ohi delako aukeratu zuela adierazi du. “Familiaren eta eskolaren arteko harremana betidanik interesatu izan zait, eta are gehiago aita izan nintzenetik. Irakasleekin eta familiekin lan egin izan dut, eta etxerako lanen gaia askotan aipatzen da. Familian, adibidez, ikaragarri hitz egiten da etxerako lanei buruz, eta gatazka-iturri izaten da askotan”. Oso maiz erabiltzen den baliabidea izan arren, horren gainean ikerketa gutxi dagoela ikusi zuen irakasleak: “Horregatik erabaki nuen doktore-tesia etxerako lanen inguruan egitea”.

Etxerako lanek ukitzen dituzten hiru kolektiboek entzun die Amiamak bere ikerketan. Batetik, etxerako lanak kudeatzen dituen kolektiboaren ahotsa jaso du, irakasleena; egiten dituztenena, ikasleena, bestetik, eta, hirugarrenik, behar horiek ukitzen duten beste sistemarena ere bai, familie-

na. Zehazki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen inguruan egin du ikerketa, “erdi ahaztuta” baitaude ikasle horiek, ikerketa-esparruari dagokionez. “Haur Hezkuntzari buruzko ikerketa eta argitalpen ederrak ikusten ditugu, bai familien partehartzeari loturiko proposamen inklusiboez, bai metodologia aktiboez edota baita haurren bizipenen inguruko ere. Lehen Hezkuntzarako material pedagogiko interesgarria ere erraz aurki daiteke, baina zer gertatzen da DBHrekin? Nire ustez interesgarria zen esparru horri ekarpen bat egitea. Benetan, sinesten dut DBHn bokaziodun irakasle trebe eta jantzi asko dagoela; baina, era berean, euskarriak eta laguntza behar dituzte, eta euren hezkuntza-proposamena hobetzeko konpromisoak”.

Tesiarekin, hiru lan handi egin ditu Amiamak: batetik, gaur egun etxerako lanei loturiko errealitatea nolakoa den ezagutzera eman du, hiru kolektiboen ahotsa jasoz. Horretarako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 18 ikastetxek hartu dute parte Amiamaren ikerketan. DBHko 723 ikasleren, 454 familiaren eta 251 irakasleren iritziak jaso ditu. Ikerketa estratifikatua izan da, eta dena hartu du kontuan: ikastolak, ikastetxe publiko zein pribatuak, ereduak (A, B eta D) eta bestelako aldaerak. Bestetik, irakasleei hausnarketarako tresna sendo bat eskaini die, eta, hirugarrenik, gaur egungo errealitatek errealitate hobe batera jauzi egiteko, lankidetzan oinarritutako familien eta eskolaren arteko proposamenak jarri ditu mahai gainean.

Etxerako lanak bai ala ez, ez da ohiko eztabaida, Amiamaren aburuz; ez DBHn, bederen. “Komunikabideetan agertu den eztabaida handi bat

Etixerako lanak

da, baina ez da errealitatea. Gaur egun, esparru teorikoan, inork ez du hori eztabaidatzen, ezta ikastetxeek ere. Kontua da nola egin behar den; antolatzen ote den; nolako etxerako lanak bidaltzen diren; zenbat; denbora kontrolatzen ote den”. Tesiaren egileak argi dauka: “Etxerako lanak bai, baina neurtuta eta mugatuta”.

Asko erabilia, gutxi aztertua

Amiamak ikastetxeetan egin duen ikerketak erakusten du, besteak beste, eskolek estrategia gisa maiz erabiltzen dutela eta eskola guztiek erabiltzen dutela: “Irakasleen erdiek maiz erabiltzen dituzte, estrategia didaktiko bat baita beraienez. Ia beste erdiek noizbehinka erabiltzen dituzte”. Galdekatutako 251 irakasleetatik 233k esan dute aldiaren behin edo ohi-turaz bidaltzen dituztela etxerako lanak (erabiltzen ez dituzten gehienek diote euren irakasgaiaren tipologia-gatik –gorputz-heziketa, teknologia...– ez dituztela agintzen). Etxean egiteko lanak agintzen dituzten irakasleen % 67k eskolatik kanpo edukia ikasteko balio handia esleitzen die etxerako lanei; irakasle horiek etxerako lanei “aldamio” funtzioa ematen diete, gelan landutako edukiei begira. “Indartu”, “finkatu”, “berrikusi”, “sakondu” edota “praktikatu” hitzekin lotzen dituzte etxerako lanak irakasle gehienek. % 18k gelan hasitako bukatzeko estrategia gisa erabiltzen ditu, eskola-garaia luzatzeko. % 25ek eskolen kalitatea hobetzeko erabiltzen dituela dio.

Alabaina, asko erabiltzen den estrategia den arren, irakasleek gutxi hausnartzen dute gaiaz, Didaktikako irakasleak ikusi ahal izan duenez. Eta, era berean, ikerketek ere gutxitan



Joxe Amiana, EHUko Gizarte Zientzien Fakultateko Didaktika Saileko irakaslea.

izan dituzte baliabide hauek. “Ez dago esparru teoriko batekin egindako hausnarketa profesionalik etxerako lanei buruz; hausnarketa pertsonalak daude, eta horrek irakasle bakoitzaren esku uzten du estrategia horrekin jokatzeko modua; norberak erabakitzen du nolako eginbeharrak eta zenbat bidali, ondokoak zer egiten duen jakin gabe”. Lege-esparru argiago bat ez egoteak ere ez dituela ikerketa eta hausnarketa bultzatzen dio Amiamak.

Etxerako lanez hausnartzeko eskatuta, ikerketan parte hartu duten ikasle, irakasle eta familiek, oro har, ondo balioetsi dituzte etxerako lanak. “Oro har, irakasleek ontzat ematen dituzte etxerako lanak DBHn. Ia denek. Hor ez dago eztabaida handirik: etxe-

rako lanak bai edo ez. Lau familiatik hiruk ontzat ematen dituzte etxerako lanak. % 10 bakarrik dago erabat kontra. Ikasleen artean bereizketa handiagoa da aldekoen eta horien egokitasuna zalantzan jartzen dutenen artean. Ikasleen artean, hiru heren bereizten dira: batetik, beren etorkizunerako garrantzi handikoak direla pentsatzen du heren batek (ikasle gehienek egin nahi dituzte goi mailako ikasketak, batez ere unibertsitatean); erdi mailako puntuazioa ematen die beste heren batek, ez baitaude ez alde eta ez kontra; eta ikasleen beste heren bat etxerako lanen kontra dago. Etxerako lanen aurka, bi argudio azaldu dituzte nagusiki: batetik, eskola-garaia dagokion denbora zein den zalantzan jartzen dute, eta, beste-

Ez da komeni etxerako lanak goizegi bidaltzea

“Noiz hasi?”, galdetu diogu doktoreari. “Ez da esaten erraza. Autore batzuek diotenez, ohitura hartzeko komeni da maila bakoitzean 10 minutu eskaintzea etxerako lanei”. Joxe Amiamak dio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan –berak ikertu duen esparruan– etxerako lanak bai ala ez galdetzea ez dela eztabaida erreala. Aldiz, Lehen Hezkuntzan bestelakoa da egoera. “Esparru teorikoak esaten du Haur Hezkuntzako umeek ez dutela gaitasunik ikasten ikasteko prozesua egiteko, eta ezta etxerako lanei eurek bakarrik aurre egiteko ere; ezin dute. Beraz, ezin zaie etxerako lanik agindu. Txikiak heldu baten laguntza behar du, eta heldu horrek irakaslearen funtzioa betetzen du etxean. Kontua da bi sistema direla eta etxean ez dagoela irakaslerik”. Beraz, HHko umei etxerako lanik ez agintzeko proposatzen du, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan bai, indargarri modura, betiere, irakasleak familiarekin

adostuta: “Baina pixkana eta oso neurtuta. Esaten da lehen mailetan, batez ere, irakurketa eta idazketa landu behar direla etxerako lanetan. Irakurketa heldu batek lagundurik egin beharko du, baina nola lagundu behar den irakasleak erakutsi behar du. Edukiak LH3tik aurrera sartu beharko liratekeela uste dut, esparru teorikoan oinarrituta; baina eztabaida handia dago horretan”.

Etxean egiteko ariketak goizegi agintzea gaitzetsi egiten du Amiamak. Ikerketak erakutsi du haurrak pozik jartzen direla hasieran etxerako lanak agintzen, “berritasuna dela medio, baina, zer eskatzen zaien jabetzean eta gai ez direla ikustean, gorrotoa hartzen diete. Ehunekoei begiratuta, argi ikusten da ikerketa batzuetan: etxerako lanak bidaltzen oso goiz hasten badira, porrot egiten dute gero DBHn. Abiapuntua txarra delako”.

tik, funtzionaltasun gutxi ikusten diente.

18 ikastetxeek erabiltzen dituzte eskolako lanak, baina horietako batek berak ere ez dauka ez klaustroan ez eskola-kontseiluan lanak bideratzeko jarraibideak ematen dituen dokumenturik adostuta. “Antolatuta ez badago, eskolek ez dute nahikoa egiten”, adierazi du Amiamak. Beste ondorio bat atera du hortik irakasleak: “Asko erabiltzen den estrategia bat bada, eskola-mailan antolatu beharko litzateke, ezta?”. Lege-esparru zehatzik ez egoteak eta, gainera, eskola-orduetatik kanpo maila administratiboan irakasleek egin behar dituzten lanek oztopatu egiten dute etxerako lanen antolakuntza, ikertzailearen aburuz. “Etxerako lanak ez badira es-

kola mailan antolatzen, desoreka bat sortzen da. Azkenean, erabakitzen duena irakaslea da, baina hark ez daki zenbat eginbehar agintzen dituzten beste irakasleek, adibidez. Horrez gain, beharrezkoa da etxerako lanen funtzioari buruzko komunikazioa handiagoa izatea, ikasleek ez baitakite, oro har, zertarako bidaltzen dizkieten lanak. Horri buruz ez da hitz egiten”.

Klaustroetan oso gutxitan izaten dira eztabaidagai etxerako lanak. Aztergai izan dituzten zentroetan, hainbat estrategia jarri dituzte mahai gainean lanak hobeto kudeatzeko. Estrategia bat, adibidez, etxerako lanak mintzagai bihurtzea da; lanak egiteko, ikastetxeko espazioak uztea; edo garai jakin batzuetan, azterketetan,

adibidez, eginbeharrik ez agintzea... “Hausnarketa egin behar da, eta horri hitza jarri. Irakasleek estrategia hori erabiltzen badute, geldialdi bat egin behar dute hitz egiteko, prozesu horretan nola doazen ikusi behar dute, ikasleentzat lagungarri diren ala ez ebaluatu behar dute, eta familiek ere informazioa jaso behar dute”.

Amiamak dio oso funtzionala izango litzatekeela gogoeta egitea eta elementu batzuk adostea, batez ere antolakuntzari dagokionez. “Izan ere, ikasleen eta familien kexak antolakuntzarekin lotuta daude. Esaterako, zergatik egun batzuetan asko eta beste batzuetan gutxi? Gogoeta hori oso logikoa da. Edo zergatik azterketa garaian? Edo zergatik agintzen diente beti ariketa bera egiteko?”.

Zertarako bidali behar dira?

Etxerako lanen funtzioaz eztabai-datu beharra dagoela uste du doktoreak. “Zertarako, noiz, nolakoak eta zenbat agindu jakin behar dugu. Beharrezkoa da koherentzia”. Ziklo didaktikoan etxerako lanak indargarri modura agintzea hobesten du egileak. “Irakasleek oso ondo balioesten dute hori, eta baita ikasleek ere; nota ona ateratzeko garrantzitsuak direla uste dute”.

Gaur egun, batez ere gelan bukatzen ez dena bukatzeko agintzen dituzte etxerako lanak irakasleek, edota, bestela, indargarri modura. “Bitxia da: bukatzeko erabiltzen direnak, oro har, ez zaizkie asko gustatzen ikasleei. Esaten dute gutxi ikasten dutela lan horiekin. Eta hori familien kexa garrantzitsu bat da. Uste dute irakasleen diseinu didaktikoa gaizki eginda dagoela. Eta sekuentzia didaktikoa gaizki kalkulatu dutela. Berrikusteko eta gogoratzeko etxerako lanak, berriz, nahiko ondo balioesten dituzte”.

Eskolan landutako gauza batzuk modu konplexuagoan lantzeko aukera ematen dien etxerako lanen tipologia balioesten duten ondoen ikasleek. “Eskolako ariketa etxean errepikatu beharrean, horri buruz gehiago pentsatzeko eskatzen zaio ikasleari, prozesua harago eramateko. Eskolan oinarria eman ostean, etxean garatzeko. Ikasleek esaten dute horrekin asko ikasten dutela, eta oinarrizko gaitasunak garatzeko horixe behar da”.

Azkenik, bada tipologia aldetik

gutxi erabiltzen den beste elementu bat, Amiamaren ustez oso indartsua: kaleko edo etxeko testuingurua baliatzeko aukera ematen duten lanak. “Adibidez, ehunekoak lantzeko, bakoitzak bere herritik zenbat auto pasatzen diren kontatu behar du, eta zenbat diren gorriak. Planoak eta mapak egiteko, berriz, herriko edo auzoko planoak har daitezke, eta iturriak kokatu horietan. Edo elkarrizketa bat egin zahar-etxe batean. Berez eskolan egin ezin diren gauzak dira”. Horrelakoak gutxi egiten dira, baina ikasleei gustatzen zaizkiela sumatu du doktoreak. “Gaitasunak testuinguruan landu behar ditugu, eta zaila izaten da hori askotan irakaslearentzat, testuingurua irrealia izaten baita, esperimentalak. Etxerako lanek aukera hori ematen digute, eta uste dut hori indartu eta aprobetxatu behar dugula”.

Ardurak hartzeko baliabide

Matematikan erabiltzen dira etxerako lanak gehien, “hemen eta munduan”. Alabaina, ikerketetan ez da ikusi loturarik eta onurarik etxerako lanen eta matematikan hobeto ibiltzearen artean. “Horrek badu bere arrazoia: ariketa bat ez badut ulertu eskolan, ezin izango dut beste testuinguru batean egin, eta are gutxiago irakaslerik gabe”. Hizkuntzen ikaskuntzan bestela gertatzen da, Amiamaren arabera, etxerako lanen bitartez ikasleen gaitasunak nabarmen hobetzen baitira.

Horrez gain, etxerako lanen beste funtzio garrantzitsu bat ikasten ikastea da. “Legeak ere jasotzen du hori; gaitasun orokor bat da, elkarrekin bizitzen ikastea bezala. Zure lanari aurre egiteko uneak ematen dizu ikasten ikasteko bidea. Beraz, gauza asko egin behar da; egin beharrekin hasteko, lehendabizi, sofatik altxatzea erabaki behar duzu une batean, edo kaleretik etxera joatea, edo telebista itzaltzea. Eta hori ez da erraza. Autokontrol izugarria eskatzen du horrek, eta ardura. Eta gure gizartearen bilakagarritatik, plano pertsonalera mugatzen da ardura gauza askotan. Historikoki, ardura hori kanpoan zegoen. Esaterako, garai batean gaueko 12etan oheratu behar zenuen, telebistan Carta de ajuste jartzen zutelako. Gaur egun, zuk erabaki behar duzu noiz joan ohera...”. Irakaslearentzat ardurak lantzea oso garrantzitsua da, eta, agian, erabil ditzakegu etxerako lanak horretarako; baina “neurri batean”, dio irakasleak, “zeren neurtu egin behar ditugu etxerako lanak. Muga bat jarri behar da”.

Denbora kontrolatzen ikastea ere etxerako lanei oso loturik dagoen zeregina da. “Ikasi egin behar dugu denbora kontrolatzen, estresaren aurkakoa baita hori gaur egun erabat. Denbora kontrolatzen ez dugulako estresatzen gara. Oso simplea da denbora kontrolatzen ikastea. Galdetu: zer egin behar duzu gaur? Zenbat denbora behar duzu? Eta denbora betetzen saiatu. Hori eskolan egin behar da.

Baina familiek ere egiten badute, askoz hobe. Zeren familiek uste dute zenbat eta denbora gehiago eman etxerako lanak egiten, orduan eta nota hobeak aterako dituztela seme-alabek. Eta ez dago loturarik bien artean.”

Ardura lantzea eta denbora kontrolatzea ekingizailerekin osolotuta daudela ikusten du Amiamak: “Nik erabaki behar dut noiz hasi, noiz bukatu, nori galdetu... Elementu interesgarriak dira. Baina, gero, tarte bat erabili behar dugu eskolan horretaz hitz egiteko”.

Ardurekin oso lotuta dagoen beste elementu bat arreta galarazten dituzten gailuak dira. “Zailagoa da gure gazteentzat guretzat baino. Guk arreta galaraziko ziguten gauza gutxi genituen garai hartan; orain, WhatsApp, emaila..., denetarik dute. Gure ikasleek autorregulatzen ikasi behar dute, eta funtzionaltasunari begira zein une diren horretarako onak eta zein ez jakin behar dute. Eta horiez da batere erraza”.

Eskola partikularrei buruz ere galdetu die parte-hartzaileei. Amiamak ikusi du irakasleek ez dietela garrantzi handirik ematen; aldiz, ikasleen herenak erabiltzen dituzte, eta erabiltzen dituztenean oso ondo balioesten dituzte. “Hor ere gogoeta egin behar da. Hainbat ikasleek agian ez dute arreta jartzen eskolan, badakitelako gero eskola partikularretan ikasiko dutela, adibidez. Edo ikasten ikasteko prozesua ez dute lantzen, badakitelako badutela beste irakasle bat, eta irakasle horrek esango diela nola egin, eta abar. Beraz, irakasleek eskola partikularrak kontuan izan behar dituzte, eta, oro har, ez dituzte izaten”.

Gurasoa ez da irakaslea

Familia eta eskola-sistema uztartzen dituelako aukeratu zuen Amiamak etxerako lanen gaia tesirako aztergai. Oso interesgarria da ziklo didaktiko horretan gertatzen dena aztertzea. “Irakasleak etxerako lanak agintzen ditu, eta ikasleak beste tes-

tinguru batean egin behar ditu lan horiek. Irakasleak ez daki zer gertatzen den etxeko testinguru horretan; gelan gertatzen denaren jarraipena egiten du soilik: etxerako lanak eginda dauden ala ez; eta, eginda ez badaude, negatibo bat jartzen du. Da-



tuak kontrastatutakoan, ordea, ikusten da familiek eta ikasleek esaten dutena oso antzekoa dela, eta horrek, neurri batean, ikasleek ez dutela gezurra esaten esan nahi du. Aldiz, irakasleak oso bestelako datuak dauzka. Esaterako, irakasleek pentsatzen dute ikasleek oso denbora gutxi hartzen dutela etxerako lanak egiteko, baina ikasleen eta familien datuek diote egunero ordubete baino gehiago pasatzen dutela behar horiek egiten. Ikasleen ulermen-mailari buruzko galderek ere datu interesgarriak eman dituzte eskolak uste duenaren eta familian gertatzen denaren arteko aldeaz: irakasleek uste dut ikasleen ulermen-maila altua dela, ulertzen dutela zer egin behar duten; baina, gero, ikasleek eta familiek esaten dute askotan ez dakitela zer egin behar duten; eta, ez badute egiten, negatiboa daukate”.

Bi sistemak ez datozela bat puntu askotan ikusten du unibertsitateko ikertzaileak. Egoera hori konpontzeko, esparru teorikoa oinarri hartuta irakasleek eman behar dutela pausoa dio Amiamak; baina, era berean, irakasleen egoera ere ulertu egin behar dela nabarmendu du. “Hainbat irakasleek esango dute beren ordutegia gero eta murriztagoa dela, gero eta gauza gehiago eskatzen direla curriculumean eta eskolan ez dagoela denborarik. Kanpotik, plano administratiboan eta ebaluazio-diagnostikoekin, presioa daukate irakasleek. Baina inbasio hori noraino doa?”. Bi sistemak hobeto konpon daitezten eta eskolatik agindutako eginbeharrak gatazka-iturri izan ez daitezten, ikastetxeak etxerako lanak mugatu eta neurtu egin behar ditu, hala dio Amiamak: “Kontrolatu ezean, eskolak

etxeko ordu gehiegi hartzeko arriskua dago”.

Batzuek eta besteek dituzten egitekoak ere –famiariarenak eta eskolariarenak– ondo zehaztu behar direla ikusi du irakasleak: “Bi sistema desberdin dira, eta, rolak ondo definitu ezean, gatazka sortzen da”. Sarri, guraso askok ez dagoen rola betetzen dute, irakasle-rola. “Hori ez da haien egitekoa, haien guraso baitira beti. Nahasketa hori egiten denean, gatazka sortzen da etxetan. Amak hartzen du irakaslearen rola, baina rol hori maitasunak kutsatzen du”. Familiak etxerako lanetan era batera edo bestera parte hartu behar badu, eskolaren eta sendiaren artean zehaztu behar da parte-hartze hori nolakoa izango den; horixe proposatzen du Amiamak. “Familiak horrelako proposamenen alde egoten dira erabat, familia eta eskola lotzeko modu bat baita. Agian, behaketa-lana egin dezakete: seme-alabek etxerako lanak egiten dituzten ala ez adieraz diezaiekete irakasleei, zer jarrera hartu duten, zailtasunak dituztenean nori galdetzen dioten; baliabide komunikatiboan aldetik etxean motibatuzko laguntza eskain dezakete; baina kontuan izan behar da etxerako lanen aurrean umeak dituen emozio horiei guztiei —frustrazioak, negar, poza...— aurre egiten laguntzeko estrategiak jaso behar dituztela gurasoek”.

Familiarentzat, gai estresagarria

Amiamak ikusten duen arriskuetako bat eskolak familiaren espazioa inbaditzea da. “Eztabaidatu eta adostu egin behar da bi eragileen artean, laguntza-erlazio eta eraginaren eta mendekotasun eta inbasioaren arteko mugak ez gainditzeko. Irakasle

bati baino gehiagori tentagarria irudi dakioke gurasoak laguntza-irakasle bilakatzea; eta, era berean, familiaren funtzioak eskolaren esku uzten diren kasuak izan daitezke”.

Familiarentzat, etxerako lanena da gairik estresagarriena. Hori argi ikusten da tesian. Seme-alabei eskolako ariketetan lagundu ezinak errudun-sentimendua sorrarazten du familiengan. “Familiarentzat, garrantzi handia dute etxerako lanak. Eskola-porrotaren arrazoiak ikertzerakoan, familiak parte hartu ez izana dela lehen arrazoiak esaten da. Horrek errudun-sentimendu ikaragarria sortzen du. Bigarrenik, ikasleen ezaugarriak aipatzen dira, eta hirugarrenik, irakaslearen jarrera. Sinestezina da”.

Behar horiek gatazka-iturri izan beharrean familia eta eskola lotzeko modu bat izan daitezten, Amiamak hainbat estrategia proposatzen ditu tesian. Batetik, gaia gurasoekin egiten den gelako bileran aztertzea proposatzen du. “Etxerako lanen inguruko diseinu bat egiten da: nola, zergatik, zertarako... Nota onak ateratzeko eta kalean ez egoteko etxerako lanak beharrezkoak direla dute buruan familiek, baina gaitasunen planteamenduz ez dute ezagutzarik (eta logikoa da), eta gustatuko litzaieke irakaslearen planteamendua ezagutzeko”.

Lehen Hezkuntzan beste estrategia batzuk erabiltzea proposatzen du. Horietako bat TIPS deituriko dokumentuak dira: “Etxerako lanen azalpena, funtzioa, helburuak, arrazoiak... azaltzen ditu irakasleak orrialdearen goiko aldean, eta baita gurasoek zertan lagundu eta nola lagundu dezaketen ere. Irakasleak eskuz idazten du noizko egin behar duen,

Europar sendotuta daude etxerako lanei buruzko legeak

Espainiako estatuan, etxerako lanei buruz ikuspegi zabal eta anbigua dauka 2006ko LOE Legeak, eta erkidego bakoitzak ezar ditzakeen dekretuen esku gelditzen da asko edo gutxi arautzea. Nafarroako Eskola Kontseiluak (2012) etxerako lanei buruzko txostena onartu zuen, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan gehiegi erabiltzen zirela eta guraso batzuek kexa egin zutenean. Hezkuntza- eta lege-esparrurik ez dagoenez, “gizartean eztabaida bultzatzea” proposatzen da Nafarroan: “Hezkuntza-komunitateko ordezkariak parte hartu behar dute eztabaidan, eta baita adituek ere, [etxerako lanen] egokitasunaz, eta kasu horretan, bolumenaz hausnartzeko”. Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokienez, 201/2008 Dekretuak hauxe dio: “Ikasleen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea”. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ikas-

leen adinaren arabera mugatzen dira etxerako lanak (gutxi Lehen Hezkuntza, usu Bigarren Hezkuntzan), Frantziako estatuan lege zehaztuta baitago nola antolatu etxerako lanak.

Danimarkak ez dauka berariazko araudirik, baina hainbat debeku orokor ditu; besteak beste, debekaturik dago asteburuetan etxerako lanak agintzea. Erresuma Batuan hainbat arau ezarrita daude Lehen eta Bigarren Hezkuntzan: familiaren eta eskolaren artean adostasuna bilatu behar da, adibidez, eta zentroak alor horretan jarraitu beharreko politiken inguruko jarraibideak daude, familientzako lagungarri; eta prestatzeko balio dezaketen eskuorriak dituzte, eta eguneko denborak mugatuta daude: lehen eta bigarren mailan, 12 minutu; 3. eta 4. mailan, 18 minutu; 5. eta 6. mailan, 30 minutu; 7 eta 8. mailan, 45 minututik 90era, eta aurrerago, bi ordu arte.

eta sinatu egiten da. Dokumentu hori etxera eramaten du, eta familiak irakurri egin behar du; eta lanaren nondik norakoen berri du horrela”.

Familia asko ez dira gai sentitzen euren seme-alabei laguntzeko, eta, Amiamaren ustez, zerikusi handia du horrek gurasoen ikasketa-mailarekin. “Ikasketa-maila altuak badituzte, pentsatzen dute, oro har, gai direla beren seme-alabei etxerako lanetan laguntzeko; aldiz, ikasketa maila baxuak edo oinarrizkoak dauzkatenek pentsatzen dute ez direla gai”. Horrek erakusten du gurasoek euren burua edukietan laguntzeko gai ikusi nahi dutela, baina Amiamak dio pentsamendu hori irauli egin behar dugula: “Zertan lagundu dezaketen zehaztu behar du eskolak, eta azaldu, baita

ere, zeinen baliagarria den etxerako lanetan laguntzea”. Familiak, edukia-kademikoekin baino gehiago, autorregulazioan eta metakognitiboak diren alorretan lagun dezakete; ohiturak hartzen (ordutegia, lekua, konpainia...), denborak neurtzen, arreta galaraziko dieten iturriak ezabatzen, motibazioa lantzen, eta arrakastaredo porrot-emozioak kudeatzen, hau da, ikasten ikasten.

Gure kasuan, hizkuntza da familia askori euren seme-alabei ezin lagundu dietela pentsarazten dien beste elementu bat. “Eskolatik hori jaso dutelako: ez badakit euskaraz, ezin diot nire semearekin alabarri lagundu. Hori egia da, baldin eta planteamendua gurasoa irakasle izatea bada. Aldiz, gurasoen laguntza bestelakoa dela

uste badugu, garrantzi handikoa izango da haien parte-hartzea, nahiz eta euskara ez jakin”. Langintza horretarako lagungarri, Emangiltza materiala aipatu du Amiamak.

Ikerketan, halaber, familiei irakasleak balioesteko eskatu die Amiamak, bi sistemen arteko harremanaz zer nolakoa den jakin nahi izan baitu. “Batez bestekoa 9 ingurukoa da. Aldiz, irakasleei galdetu diegunean ea zer pentsatzen ote duten familiak beraien buruz, irakasleen pertzepzioa askoz baxuagoa izan da: 6,5-7 bitarteko puntuazioa emango zutelako uste zuten. Ondorioa: familiak ondo baliosten du, baina ez dakigu hor erdian zer gertatzen den, hori horrela ez agertzeko. Familiak ez dute irakasle ez balioespen txarra egiten.”

cristina uriarte



argazkiak: ARGAZKI PRESS

ELKARRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua

“Abiapuntua ez da txarra,
hezkuntza-komunitatea ados gaude
gauza batean: ez dugu LOMCE nahi”

Kultura eta Hezkuntza Saila kartera berean bildu ditu Iñigo Urkulluren Gobernuak, eta Cristina Uriarteri (Hondarribia, 1961) lepo bete zaio agenda. 2012ko abenduaren 17an hartu zuen kargua, eta berriki bere lehen ikasturtea hasi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburutzan. EHUko Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordea izan zen 2004-2012 urte bitartean eta aurretik EHUko Kimika Fakultateko irakaslea.



Ezinbestean, Werten legea eta murrizketak izango dira legegintzaldi honetan Hezkuntza sailburuak kudeatu beharreko gai nagusietarik bi. Baina ez dira bakarrak, proiektu berriak dakartza, hala nola, ikastetxeei barne antolaketan autonomia emateko helburuz jaiotako Hauspoa proiektua; hezkuntza sisteman hezkidetzaren landu eta genero indarkeriari aurre hartzeko plan estrategikoa...

Bikaintasuna du helburu Uriarteren sailak. Baina ez da xede bakarra, gizartearen elebitasun errealerako bidean jarri nahi du; baita lege propio berri baterako bidea egin ere... beti ere adostasun zabala makulu harturik. "Hau guztia egiteko eragile guztien adostasunarekin egingo dugu".

Nolako hezkuntza-sistema dauka helburu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak?

Kalitatea eta orain arteko goi maila bermatzen dituen hezkuntza-sistema dugu helburu. Gure sistema ona da, badakigu, azken 30 urteotan egin dugun bideari esker, ona da. Baina badakigu, baita ere, hobetu dezakegula eta hobetu egin behar dugula. Gure programan genion bezala, bikaintasunerantz goaz eta hori lortzeko egingo dugu lana. Bikaintasuna lortzeko hiru lerro planteatu ditugu: bata ikasleari dagokiona da; irakasleari dagokiona, bigarrena; eta, hirugarrenik, administrazioarena, edo zentroena, horiek ere berritzaileak izan behar dute. Gure lema eta gobernuarena "pertsonek helburu", hori da ardatza eta xedea. Horretan zentratzen gara. Ikaslea eskolatik ateratzen denean, bere profila zein izango den da gure arduraren. Zer nahi dugu? Konpetentziak eduki ditzaten nahi dugu, ez bakarrik edukietan —matematika, zientzia...— baizik eta bizitzarako, eskolatik ateratzen denean konpetentzia nahikoa izan ditzala bai profesionalki eta baita pertsonalki ere garatzeko. Eskolatik ateratzen denean prestaturik egon dadila bizitzarako. Hori alde batetik. Bestetik, gure sistema egonkorra izateak arduratzen gaitu. Estatutik behin eta berriro —gobernuak aldatzen deno— etortzen diren

aldaketek eragiten digute. Guk hemen lortu dugu egonkortasun bat eta egonkortasun horretatik abiatuz, hobetu egin nahi dugu. Badakigu gai batzuetan hobetu egin behar dugula. PISAko datuak aztertzen baditugu, matematiketan ondo gaudela ikusten da, baina zientzietan ez gaude hain ondo. Zer egin behar dugu zientzietan gure emaitzak hobetzeko? Badaude beste adierazle batzuk gauzak hobetzeko proposamenak egitera eramaten gaituztenak. Hau guztia lortzeko, gure sistemaren ezaugarria adostasuna da. Hau da gure hezkuntza-sistemaren filosofia.

Gai zehatzetara etorrira, Partzuergoan, Lanbide Heziketan... zein dira zuen ildoak?

Partzuergoaren ezarritako dago, badoa, eta hor ez dugu aurreikusten aldaketarik. Ikasle kopurua aldatuz doa, eta beharrak sortzen diren ahala, ahal dugun neurrian, betetzen goaz.

Lanbide Heziketan, gure sistema oso ona dela ikusten dugu, Europa mailan oso errekonozitua dago. Baina aldaketa behar du, egoera ekonomikoa aldatu egin baita eta enpresak ere aldatu egin baitira. Guk ere aldatu egin behar dugu egoerarekin batera. Ekainean ekitaldi bat egin genuen Lanbide Heziketaren agenda estrategikoa aurkezteko, eta hor planteatu genuen nola aldatuko dugun hurrengo urteetan. Enprekin pixka bat gehiago landu behar ditugu harremanak, eta enpresak sortzeko ere bultzada bat egin behar dugu. Hori guztia aldatzeko, Lanbide Heziketako Laugarren Plana egin behar dugu. Lege bat egingo dugu Lanbide Heziketarako. Zentroekin lan handia egin behar dugu, baina denak oso ilusionaturik daude, eta kontagiatu egiten da ilusio hori.

“ Wert legea onartu arren, legea garatu ahal izateko dekretuak ezarri behar ditu erkidego bakoitzak, eta horrek aukera emango digu gure sistema

babesteko

”

“ Erreformatik, lehenengo eta behin, ebaluazioa aldatuko nuke; ebaluazioak edukiak, curriculumak, metodologia... baldintzatzen ditu

”

Hezkuntzan programa ugari daude, baita lehendik datozenak ere. Adibidez, eskola inklusiboaren programa, ijitoak, etorri berriak... ikasleen berezitasunak aitortzen dituenak, eta hori mantentzen dugu, eta programa berriak ere jarri ditugu martxan, genero-bortxakeriaren prebentzioari dagokiona, adibidez. Programa berri-berriena Hauspoa da.

Hauspoak zentroen autonomia bultzatuko duela irakurri dugu. Ikastetxeen aspaldiko kezka da autonomiarena. Dela irakasleen mugikortasunagatik, dela goitik ezarrita datorren curriculumagatik... beti daude besteren menpe, eta horrek barruko dinamika indartzea zaildu egiten du. Neurria jarriko diozue?

Pauso txikiak dira. Ikastetxeei barne antolaketan autonomia handiagoa emateko helburuz jaio den proiektu pilotua da Hauspoa. Ikastetxeek eskola-denbora banatzeko eredu berriak martxan jartzeko eta ebaluatzeko aukera izango dute, edo autonomia handiagoa izanda kalitatean hobera egiteko, edo eskolaz kanpoko ekintzetan ikasleen ahalik eta parte hartze handiena bultzatzeko. Zentro bakoitzak ikusiko du zein diren bere behar handienak, non dituen lehentasunak. Adibidez, eskola-porrota saihesteko, euskararen erabilera sustatzeko, edo bizikidetzak sustatzeko... Ikastetxe bakoitzak bere beharren arabera berak ikusiko du zer indartu nahi duen. Hauspoak ematen dio aukera hori. Aurten 13 zentro hasiko dira programa honetan, eta gure nahia izango litzateke aurrerantzean gehiago izatea.

Ikastetxe horiei bermatuko zaie irakasleen egonkortzea, adibidez, 5 edo 10 urterako?

Hau programa berria da, eta ikusi

egin behar da zein den emaitza. Emaitza onak ematen baditu jarraituko dugu, edo aldatuko dugu.

Baina gakoetako bat bada irakasleen egonkortasuna, hainbeste mugituz gero, zail da zentro batek hezkuntza-programa bat garatzea.

Nik uste dut nahiko egonkorra dela. Ikusten dut beharrezkoa dela irakasleen portzentai bat egotea mugitzeko, ateratzen diren beharrak betetzeko, bajak direla, ordezkapenak direla... Minimo bat beharrezkoa da. Horri buruzko datuak ikusten egon gara, eta hezkuntza publikoan 24.000 irakasle baldin badaude, 16.000 egonkorak dira, beraien plaza daukate. Gainontze-koetatik, 6.000, gutxi gora-behera, nahiz eta ez izan bere plaza, mantentzen dira 10 bat urtean. Eta gainerako % 10 mugitzen dena da.

Gipuzkoan, adibidez, eskola txiki asko daude. Eta hiru langile mugitzen baldin bazaizkie, kasu askotan plantilaren erdia da.

Puntualki zentro batzuetan gehiago igertzen da, eta gertatzen denean, bereziki kurtso hasieran, gehiago nabaritzen da.

Aipatu dituzu zenbait puntu dagoeneko LOMCErekin zerikusia dutenak; batetik, aniztasuna —Werten legeak ez dio asko lagunduko ikasleen aniztasunari— eta, bestetik, ikastetxeen autonomiaren puntua. Behin baino gehiagotan eman duzu iritzia Werten legearen inguruan, hasieran agian ez zegoen hain argi...

LOMCEren aurka edozer gauza egitea ez da nahikoa. Batu behar ditugu ahaleginak. Legegintzaldia- ren hasieran, sartu berriak gine- nean, ikusi genuen zer zetorren eta LOMCE zirriborro bat zenez, saiatu nahi izan genuen ministeritzarekin hitz eginez zerbait lortzen. Baina

berehala ikusi genuen ez genuela ezer lortuko.

Une honetan zuzenketak egiteko epea itxita dago eta, okerrik ezean, urrian edo azaroan onartuko du Espainiako Parlamentuak legea.

Ikusteko dago nola gelditzen den azken dokumentua, baina egia esan, ez daukat esperantza handirik. Uztailean jarri ziren lehen emendakinak, eta orain ere 40tik gora jarri ditugu, eta estatu mailan 500eraino iritsi direla ikusirik... nik ez daukat esperantzarik. Gure lanarekin jarraitu behar dugu, eragile guztiakin adostuz. *Wert legea* onartu arren, legea garatu ahal izateko dekretuak ezarri behar ditu autonomia erkidego bakoitzak, eta horrek aukera emango digu gure sistema babesteko.

Aukera izango bazenu, zer lauzpabost gauza aldatuko zenizkioke legerari, onartu ahal izateko?

Lehenengo eta behin, ebaluazioa. Ebaluazioak ikaragarri baldintzatzen du: metodologia baldintzatzen du, irakasleek urtetan egiten duten lana baldintzatzen du; ebaluazio horiek ez dute kontuan izango ikasleek eta irakasleek urtetan egindako lana, etsaminak jarriko dituzte eta horiek gainditzeko ikasi eta irakakatsi beharko da. Ebaluazioak edukiak baldintzatzen ditu, curriculum... dena baldintzatzen du. Azken batean, selektibitatearekin ere horixe gertatzen da: azken urtean ikasleek selektibitatea gainditzeko soilik ikasten dute. Ebaluazioak edukiak, curriculum, metodologia... baldintzatzen ditu.

Hizkuntza?

Bai, baina lege-proiektua orain dagoen bezala, guk gure hezkuntzaren sistema mantentzeko, ez da Kataluniako hizkuntza-eredua



bezala. Beraiek [Madrilek] ez digute guri esango gure hizkuntzaren irakaskuntza nola egin behar dugun, kompetentzia horiek gureak baitira. Horrek erakusten du nola zapaltzen gaituzten: ez dute kontuan izaten kompetentziak ditugula, eta lege-proiektuaren izkin batean esaten dute “posible duzue zuek etsaminak egitea...”. Ez dute aitortzen horiek gure eskumenak direla, eta horretan ezin dutela sartu.

Niretzat Lanbide Heziketarekin egin nahi dutena ere ikaragarria da. Umeak sistematik oso goiz atera nahi dituzte, eta horrek hemen daukagun sistema erabat baldintzatuko luke. Gainera ekonomikoki ezin da hori mantendu.

Aipatu duzu hezkuntza-komunitatearekin adostasuna lortzea beharrezkoa izango dela. Hilabete eta erdiko epea dago legea onartu

“ Bereziki bultzatu nahi dugun aldaketa A ereduan etorriko da; irakasgai gehiago sartu nahi ditugu euskaraz

”

“ Etorkizunean lana egingo duten profesionalak prestatzen ari da eskola, eta horiek ondo formatu behar dira, bestela, etorkizuneko gizarteak sufrituko du

”

aurretik. Ze estrategia proposatuko diozu hezkuntza komunitateari?

Beraiekin egon ginen kurtso bukaeran LOMCEri buruzko hausnarketa bat egiteko. Gure asmoa da elkartu eta beraiekin lanean jarraitzea. Edozer gauza egiteko adostasuna behar dugu, adostasun zabala, bestela ez dugu ezer egingo. Momentu honetan abiapuntua ez da txarra, hezkuntza-komunitatea ados gaude gauza batean: ez dugu LOMCE nahi. Oinarrrian adostasuna dago. Inportanteena da nola bermatu gure sistema, nola bermatu gure emaitzak, eta nola hobetu.

Gure sistema bermatze horretan, eragile askok diote hizkuntzen ereduen sistemak berea eman duela, gainditu eta beste sistema amankomunago bat behar dugula. Zer egin daiteke emaitza horiek hobetzeko?

Guk azterketa horiek egin ditugu. Eta nahiz eta D ereduan ikasi, datuek erakusten dute zenbaiten kasuan euskararen konpetentzia oso oinarrizkoa dela. A ereduan % 84k ez dute euskararen konpetentzia lortzen.

D ereduan heren batek ez eta B ereduan bi herenek.

Hori ez da ordea ereduen kontua soilik. Euskararen erabilerarekin zerbait egin behar da, baina ez bakarrik eskolan, baita bizitzan ere, eta horretan ari gara Hizkuntza Politikatik. Oso harrigarria da eskoletan erderaz hitz egitea klasetik kanpo. Gelan bai, irakasleak emango ditu bere eskolak euskaraz eta ikasleek egingo dituzte azterketak euskaraz, baina handik ateratzen dira ikasleak, eta patioan edo edozein lekutan erdaraz hitz egiten dute. Errealitatea ez da berdina Azpeitian edo Gasteizen. Ez da bakarrik ereduaren aldaketa, baizik eta nola bultzatu euskararen

erabilera arlo guztietan, batez ere eskola inguruan, familia inguruan, lagunekin ateratzen zarenean... Nik ikusten dut nire seme-alabekin, segun ze giroan mugitzen diren, erabiltzen dute edo ez dute erabiltzen.

Gaur egun daukagun hizkuntza-ereduan normatiba nahiko malgua da aukera ezberdinak lantzeko. D ereduan argi dago, hor ez dago aldaketarik, egin behar dugun moldaketa bakarra hirugarren hizkuntza sartzeko egin beharko da. B ereduan euskaraz ematen dena eskolen arabera oso zabala da. Baina bereziki bultzatu nahi dugun aldaketa A ereduan etorriko da. A ereduan irakasgai gehiago sartu nahi ditugu euskaraz. Dagoen normatibak aldaketa horiek egiteko aukera ematen du, eta hori askoz errazagoa da orain, bat-batean, ereduak kentzea eta horretarako adostasuna lortzea baino.

Euskararen irakaskuntzari dagokionez, metodologia eta prestakuntza ere oso garrantzitsuak dira. Irakasle eskolekin ez ote litzateke egin behar hitzarmen bat?

Bai, hori kezka bat bada. Ikusi behar da, baita ere, lanean ari diren irakasleen adina zein den. Irakasle zaharrenei metodologia berria sartzeko oso zaila da. Lan handiagoa egin behar dugu berrieekin, Magisteritza Eskoletan, ea nola prestatzen dituzten irakasleak, bai metodologiaren aldetik, bai hizkuntzaren aldetik ere. Eta ez da euskara bakarrik. Hirugarren hizkuntza indartu eta gehiago bultzatu nahi badugu, Unibertsitatean formazioa ingelesez egitea oso garrantzitsua da. Gaur egun, hezkuntza publikoan % 17k bakarrik daukate B-2 maila ingelesean, eta horrek esan nahi du irakasle asko formatu behar ditugula ingelese gehiago sartzeko.

Hezkuntza-komunitateak bai LOMCeri aurre egiteko eta baita geure hezkuntza-sistema babesteko, lege propioa aldarrikatzen du. Oinarrizko Hezkuntza Akordioak kontsentsu zabala izan zuen. Legegintzaldi honetan lege berririk izango dugu?

Lege bat lortzeko oso adostasun zabala behar dugu eta hori ez da erraza. Momentu honetan abiapuntu bat badaukagu, eta LOMCeri aurre egiteko pausoak emango ditugu. Gure asmoa lege berri baterantz pausoak ematea da. Ez dakigu noiz lortuko dugun, ez dakigu legealdi honetan izango den, edo legealdi honetan jarriko ditugun oinarriak hurrengoan onartzeko. Baina hori da gure asmoa. Hasi lan egiten, adosten, lege propio berri bat adosteko. Hori gure helburuetako bat da, helburu oso garrantzitsua.

Zuek esan zenuten hezkuntzaren kalitatea bermatuz egingo zenituztela murrizketak. Nola egin duzue hori?

Hasteko, ez nieke egoera ekonomiko honetan "murrizketa" deituko. Nik murrizketak ulertzen ditut dirua eduki bai baina banatzen ez duzunean; dirurik ez daukazunean ez dira murrizketak. Diru gutxiago dugu, 1.500 milioi euro gutxiagorekin gizarte osoak aurrera egitea zaila da. Gobernuak argi izan du oinarrizko zerbitzuak babestu egin behar zirela: zerbitzu sozialak, osasuna eta hezkuntza. Eta horretan ari gara. Egia da, ez dela gauza bera beharrezkoa, urgenteena eta inportantea. Hezkuntzari dagokionez inportantea dena da, beti, baina lehenengo urgenteena edo beharrezkoena bermatu behar dugu, eta inportantea den hori pixkanaka-pixkanaka joango gara egiten. Bermatu ditugu irakasleak, guretzat hori zen inportanteena. Kalitatea



bermatu dugu, ratioak mantenduz; mantendu ditugu jangelak, garrarioak, bekak... guretzat oso inportantea da. Obrak kendu egin ditugu, ikasturte honetan ez dugu obrarik egingo, atzeratu egin ditugu, hurrengo urtean edo hurrengoan hobeto egotea espero dugu eta orain uzten duguna egingo dugu. Badakigu ez dela nahikoa, baina saiatzen gara beharrezkoena bermatzen.

Zaila da 2 urteko 18 haurren gela bat irakasle batek kudeatzea. Nola berma dezake irakasle horrek kalitatezko hezkuntza?

Bai, zaila da. Espero dugu aurrerago gauzak hobeto egotea.

Prestakuntzan izugarri murriztu da.

Bai, nonbaitetik kendu behar genuen, beste gauza batzuk mantentzeko.

Europa-mailan egin zen ikerketa batek erakutsi zuen hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko, 3,9 euroko etekina ematen duela. Nahiko sentsibilitate ba al dago hezkuntzaren garrantziari buruz?

Ez dut uste gizarteak sentsibilitate hori duenik. Gizarteak hezkuntza

oinarrizko zerbitzu gisa ikusten du. Gure gizartea nola dagoen osasunak eta hezkuntzak erakusten dute. Hezkuntzan inbertitzen den dirua gizarteari nola itzultzen zaion ez da ikusten. Inpaktu ekonomikoa aztertzeko ikerketa zehatz bat egiten ez baduzu, ez da ikusten. Duela urte batzuk unibertsitatearen inpaktu ekonomikoa zein zen aztertu zen eta jendea asko harritu zen emaitzekin. Etorkizunean lana egingo duten profesionalak prestatzen ari da eskola, eta horiek ondo formatu behar dira, bestela etorkizuneko gizarteak sufrituko du. Igual Lanbide Heziketan argiago ikusten da inbertsioaren etekina, baina Oinarrizko Hezkuntzan ez da ikusten.

Legegintzaldi honetan irakasleen izen ona indartu nahi duzuela esan izan duzu. Zer gertatzen zaio irakasleen prestigioari?

Nik ikusten dut kanpotik prestigio galtze bat egon dela azken urteetan, irakasleak ez daude ondo ikusita. Zentro batean arazoak daudenean, orain irakasleen kontra joaten dira bai ikasle eta familiak. Nola eman diezaiekegu berriro prestigioa irakasleei?



0-3. Hezitzaileen formazioa

Ikastaroaren hasiera-ekitaldia:



Irailaren 20an eman zitzaion hasiera *bik hasi*-k antolatutako 0-3 ziklorako hezitzaileen formazio-ikastaroari. Etapa horrek nortasunaren eraikuntzan eta haurraren garapenean eta autonomian daukan garrantzia ikusirik, eta 0-3ko irakasle eta hezitzaileek formazioarako “nahia eta beharra” dutela ondorioztatuta antolatu du hik hasi-k bi urteko prestakuntza trinko hau. Lehen ikasturtean, Emmi Piklerren ekarpen pedagogikoaren inguruko formazioa jasoko dute ikasleek; eta bigarreanean, Loris

Malaguzziren ekarpenak ezagutuko dituzte.

Formazioaren hasierako ekitaldian izan ziren Joxe Mari Auzmendi *bik hasi*-ko kidea, Juanjo Quintela psikologoa eta ikasturte honetako koordinatzailea eta bi ikasturtetan formazio pertsonaleko irakasle ariko de Alvaro Beñaran, Luzaro psikomotrizitate-eskolako irakasle eta pedagogo terapeuta. Formazioaren koordinatzaile Quintelaren esanetan, esfortzu sakona egin behar dugu gure herrian pisu nabarmena duten joera pedagogiko

aurrerakoen alde positiboak bilatzen, bakoitzak duen ahalmenaz baliatzen eta koherentzia galdu gabe denok aberasten gaituen ikuspegi zabalago bat eraikitzen. “Horrexegatik, haurraren lehen bi urteetarako nahitaezko ekarpena den Pikler-Loczyren proposamenarekin batera Loris Malaguzziren ekarpena landuko da eta horrenbesteko pisurik ez duen arren, lehen urtean atea zabalduko zaio Waldorf-pedagogiari ere”. Irekiera-ekitaldiaren egun berean hasi zen formazioa ere.

“Gorputzezko harreman estuan dago haurraren geroko bilakaeraren gakoa”

Irekiera ekitaldiaren egun berean hasi zen formazioa ere eta hasierako bi saioen xedea Emmi Plikerren ekarpen pedagogikoaren gaineko erreferentziatzko markoa azaltzen izan zen. Lehen saioa Xabier Tapia psikologo klinikoak eta logopedak eman zuen *Humanizazio-prozesua*.

Gizakiaren oinarrizko unitate psikosomatikoa izenburupean. Haur jaioberriaren oinarrizko heldutasun biologiko ezaz eta gaitasun harrigarriez, tonuaz, aldaketa toniko-emozionalen entzuketaz eta elkarrizketa toniko-emozionalaz hitz egin zuen, besteak beste

Haurraren humanizazioaz hitz eginez hasi zuen saioa Tapiak. Bere esanetan, haurrak, jaiotzez, umeen artean hutsalena izanik ere, orain gutxi arte uste izan dena baino askoz ere gaitasun handiagoa du munduarekin harremanetan hasteko, bai pertsonekin eta baita ingurune fisikoarekin ere: “Baina, gaitasunak izatea bat da, eta gaitasun horiek gauzatzea guztiz beste bat. Eta berezkoak dituen gaitasunak gauzatuko baditu beste pertsona batzuek presentzia (ama batez ere, gurasoak, zaintzaileak) ezinbestekoa du, eta bestela ez da humanizatuko”.

Hizlariaren arabera humanizatzeko zera esan nahi du batez ere: komunikatzeko gogoia eta gauza izatea eta hizkuntzaz baliatzen jakitea, hau da, gizakiak duen koderik sofistikatuenaren jabe izatea eta egoki erabiltzea. “Eta hori ez da ez ikasten, ez berez garatzen, giza harreman egoki baten ondorio



da. Haurrak hitz egiteko nahia senti dezan, hutsunea egon behar da haurraren eta helduaren artean, baina hutsune horren aurretik atseginezko gorputz harremanak izan behar dira, eta aurrean hori egoki ez bada egiten, haurrak arazoak izan ditzake hutsune hori hitzez betetzeko”.

Haurraren bi ardatz nagusi aipatzen ditu Tapiak: gorputza eta harremana. Bere hitzetan, haurrak nahitaezkoa du gorputzaren bitartez besteekin topo egitea, eta haur txiki bati erreparatzea nahikoa da amarekin edota aitarekin gorputz-haragizko harreman estu bat duela ikusteko. “Giza psikismoaren garapen on baterako bi erraileko bide bakarra dago: harremana eta gorputza. Profesionalok, naturan bi osagarri horiek hor daudelarik, bere ezaugarriak ezagutzen saiatu beharra daukagu. Gorputzak bere

legeak ditu eta harremanak ere bai, eta lege horiek kontu handiz errespetatzen ez baditugu haurrak arazoak izan ditzake bere garapenean”.

Haurraren funtzio tonikoari ere garrantzia ematen dio Tapiak, horixe baita haurrak hizketan hasi arte bere barne beharrak eta sentipenak adierazteko darabilen modua. Gorputzaren alderdi bat da: giharrek edukitzen duten tentsio edo tonu maila, handiagoa edo txikiagoa, faktore askoren arabera aldatzen dena. Horregatik, “haur txikiek oraindik ere hizketan ez dakitenez, helduok bere gorputzari (keinuak, mimikak, bokalizazioak, posturak...) begiratuko diogu nola sentitzen den, zer behar duen, mina duen edo ez... asmatzeko”. Funtzio tokinoak ezinbesteko baldintza bat eskatzen du hizla-

riaren ustez: bere aurrean, bere gorputzaren lengoai hori ulertzeko nahikoa sentiberatasun duen norbait egon behar da (gurasoak, zaintzaileak...) eta hala bada, norbait horren tonizidatea ere, ustekabean eta nahigabe aldatu egingo da: "Denok bizi izan dugu eta bizi dugu esperientzia hori: haur txiki bat beso artean dugularik, batzuetan hunkitu eta besteetan ernegatu egiten gaituela

eta gure sentipenaz haurra ohartu egiten dela. Nola? Gure gihar tonuaren edo tentsioaren aldaketaren bitartez. Ahotsa ere aldatu egiten zaigu tentsioaren arabera eta batzuetan elkar ulertze sakona sentitzen dugu; beste batzuetan, aldiz, etena, ezin asmatua, ezin ulertua". Horixe da elkarrizketa tonikoa: bi pertsonen arteko gorputzezko, haragizko harremana. Eta Tapiaren aburuz,

profesionalek horretan besteek ez bezalako erantzukizuna dute: ezin da tonizidatea espontaneidatearen eskuetan utzi, tonizidatearen jabe egin behar da lehendabizi eta ondoren tonizidatea landu. Izan ere, funtsean elkarrizketa toniko-emozional horretan dago haurraren geroko bilakaeraren oinarri sakona: "0-2 urteen artekoa ez da hezkuntza historia, baizik eta harreman historia da".

Ezoz Arizaga Lizarralde: Atxikimendua, giza garapenaren euskarri-eratzaila

"Haurrak adierazten dituen beharrei modu esanguratsuan erantzun behar die atxikitako helduak"

Ikastaroaren bigarren egunean, Ezoz Arizaga Lizarralde psikomotrizista eta maistrak "Atxikimendua, giza garapenaren euskarri-eratzaila" izeneko eskola eman zuten teoria eta praktika tartekatuz. Atxikimendu lokarria eta belaualdi arteko inplikazio sistemikoaz aritzeaz gain, haurraren garapen prozesuko faseez eta ezaugarriez edota errepresentazio mental eta psikikoaz mintzatu zen.

Atxikimenduaren inguruko azalpenetan sartu aurretik, familiarekin dugun inplikazio sistemiko lokarriaz hitz egin zuen Arizagak, atxikimendua zer den ulertzeko beharrezkoa baita kontzeptu hori argi izatea. Hizlariaren esanetan, familia sistemarekin bat eginda gaude sortze momentutik eta hau beharrezkoa da bai familia sistemarentzat eta baita jaioko den umearentzat ere, partaide izate sentimendu hori edukitzea behar biologikoa baita: "Lokarri horrek sistemaren betie-



reko lotura izatea eta sistemaren beraren jarraikortasuna bermatzen ditu. Modu horretan inplikazio sistemiko bat osatzen da eta inplikazio horrek sistema horren inkontziente kolektiboaren informazio osoa jasotzen du". Horrekin guztiarekin gatoz munda, Arizagaren arabera, eta horrek taldeko kide izaten laguntzen du. Aldi berean, taldeko kide izate

horrek funtzio bat dauka gizartean eta sozializazioan, edo sozializazioan eta gero gizartean: "Pertsona oro mundura iristen da sozialki harremanak izateko beharrezkin. Burmuina garatu eta organizatu dadin ezinbestekoa da baldintza hau, hots, harremanak izatea. Ezagutza partekatu egiten dugu, beraz, pertsona loturaz osatutako munduan hazi eta bizi da".

Arizagak azaldu zuenez, familia-sistemarekin dugun lotura horren baitan ulertu behar da atxikimendua. Eta lotura den heinean, esanguratsuak diren pertsonekin eraikitzen den harreman lotura da atxikimendua, eta denbora iraunkorrean gertuko harremana bilatzera bultzatzen du.

Atxikimendua ez segurua izan badaiteke ere, atxikimendu segurua-ren gainean jardun zuen, hori baita egokiena haurraren garapen onerako, eta atxikimendu segurua bermatu dadin jaiotzen den mo-



mentutik umetxoa amaren gorpuztean jartzen bada, aurrez amarekin izandako kontaktu horretatik ezaguna duenaren kontaktua sentitzen du: “Amak hitz egiten badio, ahotsa ezagutzen du, baina batez ere amaren bihotz taupadak ezagutzen ditu eta horregatik lasaitu egiten da. Beraz, haurra amaren sabel gainean jartzen bada, atxikimendu prozesu hori eraikitzen ari da jada”.

Horrez gain, atxikimendua segurua izan dadin, Arizagaren ustez, arreta partekatua izan behar da, hau da, bi pertsona edo gehiagok, momentu, ekintza edo egoera berbera interaktuatu behar dute: “Haurrak baldin badaki bera atxikitako heldu hori hurbil erraza eta sentibera dela, segurtasun handia barneratzen du, eta elikatu egiten da harreman horretan jarraitzeko”.

Hizlariaren aburuz, bada beste alderdi bat ere oinarrizko lotura segurua bermatzeko beharrekoa: haurrak bere helduarekin harreman jarraitua eta etengabekoa izatea, hain zuzen ere. Izan ere, bizitzako lehenengo pare bat urtetan menpekotasun egoeratik zaintzarekin zeharo lotuta dago haurra, hau da, oinarrizko beharrak jasotzearekin eta horretan haustura sortzen bada, garapeneko arlo guztietan eragina izango du. “Beti ez dira bete beteko erantzunak ematen eta horrexegatik haurrak frustrazioa sentitzen du eta

frustrazioak beharrezkoak dira, baina frustrazioa ongizate maila baino gehiagokoa bada, kalte psikiko nabarmenak izan ditzake haurrak”.

Saioan adierazi zuen moduan, atxikimendu segurua bermatzeko alde batera utzi ezin den beste aspektu bat zera da: haurraren beharretara egokitzeaz gain, bere garapen erritmora egokitzeak duen garrantzia. Eta Emmi Piklerren nahiz Henri Wallonen adierazpenak ekarri zituen gogora. Piklerren arabera, haur batek garapen mantsoagoa adierazten duenean, horretarako eskubideaz gain, oso arrazoi sakonak ditu bere garapena hala izateko. Wallonen esanetan, berriz, jadanik garatutako burmuineko loturak ez kaltetzeko garapeneko erritmoa errespetatu beharra dago.

Beraz, “intrusiboegia den hezkuntzak haurra halako edo honelako ekintzetarako gertu egon gabe ekinean jartzen duenean ez dio batere laguntzen bere garapenean. Haurrak ez badu sentitzen bera dagoen ingurunean aitortza duenik, ezingo da inguru horrekin fidatu, ezingo du berea egin, ezta horretan interesa eduki ere. Behin eta berriz falta zaiona gogoratzen bazaio, ezingo du lortuta duena barneratu eta asko mugatuko du haurrak berez ikas-irakasteko dakarren modu natural hori”.

Arizagak argi du eskolak familien zerbitzura egon behar duela eta ez alderantziz, eta ondorioz, hezkuntza sistemak seriozki planteatu behar duela, eskaintzen duen hori haurraren garapen normalerako beharrezkoa den edo ez: “Haur Hezkuntzan gero eta lehenago hasten da instrukzioa, eta sarritan eduki akademikoak garapen afektibo eta emozionalaren, eta benetako sozializazioaren gaintik jartzen dira. Alde batera uzten dira behar indibidualak eta horren gaintik jartzen dira taldeko beharrak. Kalitatezko zaintza profesionalak eskatzen du konektatua eta zentratua egotea. Beste era batera esanda, haurra eskatzen ari den arretari lotuta egotea”.



Semente: mila udaberriren zain dagoen belaunaldia

Txema RODRIGUEZ

EMUN-EKO TEKNIKARIA ETA SOZIOLINGUISTA

Eider PALMOU

URRETXINDORRA IKASTOLAKO HH 0-3KO IRAKASLEA

Orain dela bi urte, Gentalha do Pichel zentro sozialaren inguruan zebiltzan lagun batzuei ideia zoro bat bururatu zitzaien: Galiziako eskola nazionalaren lehen harria jartzea. Pentsatu eta egin: orain dela bi urte sortu zen Compostelan Semente izeneko eskola.

Orain dela berrogeita hamar bat urte, Euskal Herrian zoro batzuek ideia bera eduki zuten eta ikastolak jarri zituzten abian. Hori dela eta, hangoen deia jaso genuenean, hara joatea erabaki genuen. Irrien Lagunak taldeko hamahiru lagun abiatu ginen: hango errealitatea gertuagotik ezagutu nahi genuen, eta, era berean, hemengoan artean ezagutzera eman nahi genuen Galiziako egoera.

Apirilaren 26an, ostirala, abiatu ginen Galiziara, 5 eguneko bidaiara ginen aurretik.

Larunbatean, Compostelan hasi genuen ibilbidea. Sementeko gurasoak izan genituen gidari. Agenda beteta izan genuen han: *As dúas Mariás* nor izan ziren azaldu ziguten. Maruxa eta Coralía ziren. Galiziako garai gris haietan kolorez jantzi ziren, errebeldiaren ikur gisa. Liburu-azokan ibili ginen, eta Rosalía de Castrori bisita egin genion. Rosalía galiziarrentzat erreferentzia da hizkuntza-arloan.

Alde Zaharrean bueltaka ibili ginen, bazterrak ezagutzen. Hango ka-



lerik estuena ere zeharkatu genuen. Tradizioak agindu bezala, desira betetzea eskatu genuen, gure bi hizkuntzentzako garabideak opatuz.

Sementek jardunaldi pedagogikoak antolatu zituen, eta, arratsalde partean, Porrotx eta Marimotots beren ibilbideaz eta Irrien Lagunen proiektuaz mintzatu ziren. Gu biok, gainera, ikastolen murgiltze-ereduaz aritu ginen.

Domeka eguerdian, bermutaren orduan, Sonora Maxín Ourenseko taldearekin jardun zuten Porrotxek eta Marimototsek eta, zelan ez, *Quêrote máis* abestu genuen ahots biziz.

Astelehena egun handia izan zen: Semente eta hango umeak ezagutzeko aukera izan genuen. Elastiko-lantegia egin genuen umeekin batera, eta eskolako bazterrak erakutsi zizkiguten. Arratsaldean, Galiziako kostaldean ibili ginen, itsasadarrez itsasadar: Corrubedo, Porto do Son, Baronhako kastroa, eta abar. Gaua

heldu arte.

Martitzena, bigarren egun handia: Courel, Lugoko mendialdea. Apalpador izeneko pertsonaia handia ikusi nahi genuen. Gabon garaian menditik etortzen den gizon handia. Umeen tripak laztantzen ditu, gose diren jakin nahian. Gaztainak eramaten ditu poltsikoetan, eta Olentzeroren laguna da. Mendian bueltaka ibili ginen eta...



ELKARRIZKETA

Alvaro Mera “Badu”,
Sementeko hezitzailea

Nola daukazue antolatuta espazioa?

Espazioa txokotan antolatuta dago. Txoko bakoitzak helburu bati erantzuten dio eta, era berean, umeen autonomia handitzea nahi dugu. Adibidez, plastikako txokoan plastikako gauza guztiak daude, berdin logika-matematikako txokoan, eta abar. Txoko gehiago ditugu: mugimenduaren txokoa, dramatizazioaren txokoa, jolas sinbolikoaren txokoa, eta abar. Umeak txokotik txokora mugitzen dira, eta euren gogoren arabera aukeratzen dute txoko bat edo bestea. Umeek badakite gauzak non dauden, eta, beraz, guk ez dugu euren atzetik ibili behar. Hasieran, asko landu behar da hori, bestela gauzak ez dituzte batzen, edo behar ez den tokian sartzen dituzte. Baina orain hori egiteko ohitura hartu dute.

Horrez gain, kanpoan ere baditugu txokoak: oilategia, ortua, hareazko jolastokia, hamaka... Eurek badakite non dauden lurra lantzeko tresnak, oiloentzako janariak, jostailuak... Azken finean, guk euren autonomia lantzen dugu, ardurak dakartzan askatasuna, azken batean.

Zelakoa da Sementen egun arrun bat?

Goizeko zortzi eta erdietan irekitzen da, eta hiru eta erdietan itxi. Hori da irekita dagoen ordutegia. Baina guk ez dugu nahi umeak eskolari egokitzea, baizik eta eskola umei egokitzea. Izan ere, familia batek ume-

kin gosaldu badezake, zertarako etorriko da goizeko zortzietan eskolara? Etor dadila, baina beranduago. Hala ere, ikasturte hasieran familiekin adostu genuen ordutegi zentral bat izatea. Ordutegi horretan, jarduera zuzenduak egiten ditugu eta, era berean, guk geuk ere antolatze-ko erraztasun handiagoa dugu. Ordutegi hori, gutxi gorabehera, hamarretatik ordu bietara izaten da. Orduan, hamar eta erdiak arte umeak txokoz txoko ibiltzen dira, libre, olgetan. Guztiak datozenean, batzar txikia egiten dugu. Aurreko egunean egindakoaz hitz egiten dugu, gauzak ondo atera ziren, gatazkarik egon al zen, eta abar. Eta gero, egunean bertan egin behar-koez hitz egiten dugu. Hezitzaileok lan-proposamena egiten dugu, eta umeen feedback-a jasotzen dugu. Eta, jakina, umeek badaukate ahalmena jarduerak aldatu eta berriak proposatzeko.

Gure eskola unitarioa da, hau da, 2 urtetik 6 urtera bitarteko ume guztiak batera daude, eta batera lan egiten dugu eurekin. Hori bai, askariaren ondoren (12ak aldera), taldeak banatu ditugu eta ume bakoitzarekin banaka egiten dugu lan, bakoitzaren gaitasunen arabera. Ondoren, bazkalordua dator. Autonomia lantzeko une egokia da baita ere. Ume batzuek gurasoenean bazkaltzen dute, eta beste batzuek hemen.

Zuen eguneroko lana <http://sementecompostela.com/index.php/category/blogue/> blogaren bidez zabal-tzen duzue. Zer helburu bilatzen duzue blog horrekin?

Hasiera batean webgunea geneukan, baina ez zen oso erabilgarria, batez ere informatikaz asko ez daki-gunontzat. Beraz, bloga komunikazio-tresna bat da. Izan ere, familiez gain, dirua jartzen duen jende asko



dago, eta haiei gure informazioa helarazteko bide eraginkorra da bloga. Haiei eman behar diegu hemen egiten denari buruzko informazioa, derrigorrezkoa da. Hamabost egunean behin, Sementeren egunerokoa igotzen dugu, hamabost egun horietan landu ditugunak, eta abar. Gainera, blogak ere gordailu gisa balio du. Nire ordenagailuan ehunka argazki eta jarduera ditut, baina blogean horiek guztiak antolatuta daude.

Hizkuntzaren irakaskuntzan zelan aritzen zarete Sementen?

Semente hizkuntzaren kezkarekin jaio zen. Hemen, Santiagon, ohikoa da umeek eskolan etxetik dakarten galiziera galtzea. Beraz, etxetik galiziera dakarten umeek hizkuntza ez galtzea nahi du Sementek. Baina baita etxetik ez dakartenei galizieraz bizitzeko espazioa eskaintzea ere. Tristeia baita Galizian sei urteko ume gehienek ez jakitea galiziera. Beraz, gure asmoa da Semente galiziera hutsezko eskola izatea. Baina ez ghetto bat. Interesgarria iruditzen zaigu kanpoko errealitatea Sementen islatzea. Gure lana baita Semente galiziera hegemonikoa izango den gunea izatea. Horretarako, hezitzaileok umeekin landu behar dugu hizkuntzaren gaia. Batez ere alderdi ludikoa lantzen dugu, umeen adinagatik. Eta beti zentzu positiboan. Guk ez diegu umei esaten nola egin behar duten, guk erakutsi egin behar diegu galiziera euren hizkuntza dela, galiziera maitatu egin behar dutela, galizierak lekua ematen diela munduan. Eta hori da lortzeko modu bakarra. Ez dugu beste bide batzuen bidez lortu nahi.

Semente eskolaren oinarriak

Semente galiziera hutsez irakasten duen eskola da, 2 urtetik 6 urtera bitarteko umeentzat. Jarduera guztiak galizieraz izaten dira. Galizieraren nazioarteko izaera ere aldarrikatzen dute (hizkuntza portugeseetik gertuago dagoen ortografia erabiltzen dute).

Sementek pedagogia eraldatzailerik darabil. Eskola jendartearen parte dela ulertzen du. Herri-interesei erantzungo dien irakaskuntza demokratikoa bultzatzen du. Azken finean, haien helburua ume libre eta kritikoa sortzea da.

Semente sormenaren eta berrikuntzaren gunea da. Pentsamendu sortzailearen bidez, umeen gaitasun artistikoak eta imajinazioa bultzatzeko tresnak ematen ditu. Umeek egotere eta arazoei ikuspuntu askotatik behatzen diete, gatazkak konpontzeko askotariko bideak aztertuta. Horrela, hainbat galderari erantzungo diete, sormenez eta berrikuntzaz.

Semente eskola laikoa da. Heziketa laikoak kontzientzia eta giza eskubideen askatasuna bermatzen ditu, baita tolerantzia eta demokrazia

ere. Erljio-kutsuko edozein inposizio, propaganda edo doktrinamenburik gabeko eskola da.

Semente koedukaziorako gunea da. Genero-berdintasunean oinarrituta, heziketa integrala bilatzen du. Patriarkaturik eta sexismorik gabeko gunea da, umeen ahalduz biltzen duena, euren bizitzan jabe egin daitezten.

Semente batzar bidez zuzentzen da. Batzarrean, horizontalki hartzen dute parte aitek, amek, hezitzaileek eta umeek.

Gurasoek parte-hartze zuzena dute Semente eskolan. Eguneroko bizitzan, pedagogian, diru-bilketetan eta abarretan.

Sementek naturaren barruan hezten du. Umeek, lurra landuz, ingurumen-balioak lantzen dituzte: ortua landuz, oiloak zainduz, ibaira ibilalditxoak eginez... Eta, horrez gain, eskolaren barruan erabiltzen dituzten material guztiak birziklatuak izaten dira.

Sementek umeen askatasun arduratsua babesten du. Hezitzaileek konfiantza dute umeengan, pertsona gisa

errespetatzen dituzte. Umeak askatasunaren kontzientzia edukitzea bilatzen da, baina baita besteen errespetuan oinarritutako muga batzuk ere.

Semente heziketa-espazio interaktiboa da. Hezitzailea bitartekaria baino ez da, umeari laguntzen dion bitartekaria. Harreman pedagogikoa elkarlanean oinarritzen da: hezitzaileak eta umeek baldintzak sortu behar dituzte umeen garapen integrala bultzatzeko.

Sementen irakasleen eta ikasleen arteko harremana plano berean garatzen da. Maitasunaren, ulermenaren eta enpatia bidez, umeek elkarrikiko errespetua zer den ikasiko dute.

Semente kulturartekotasunaren gunea da. Umeek gure herrian bizi diren beste kulturak ulertzen eta balioesten ikasten dute. Denon artean eta elkarri eraginez, hazteko eta lan egin ahal izateko.

Komunitateari irekitako eskola da Semente. Auzoaz eta Compostelaz arduratzen den eskola da. Saiatzen gara herriaren errealitateari eta egunerokoari kasu egiten eskolan bertan.



Euskal Herritik joandako taldekideak Galizako Semente eskolako hainbat kiderekin



ELHUYAR IZAN NAHI DUZU?

GEHIAGO JAKIN
NAHI DUGULAKO
GIZARTERATZEN
DITUGU ZIENTZIA ETA
TEKNOLOGIA.

EUSKARAZ BIZI NAHI
DUGULAKO EGITEN
DUGU LAN EUSKARAREN
GARAPENEAN.

Izan zaitez Elhuyarreko bazkide.
www.elhuyar.org/bazkidetza



elhuyar
Fundazioa

Zelai Haundi kalea, 3
Osinalde industrialdea
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
tel.: (+34) 943 36 30 40/luzp.: 307
www.elhuyar.org
bazkidetza@elhuyar.com

Eskolako elkarbizitza hobetzeko proiektua Txilen



Patricia Del Carmen ESPINOSA
TXILEKO MACHALÍ LIZEOKO IRAKASLEA

Gaur egun, uste sendo bat nagusitu da herrialde guztietan, eta Txile ez da salbuespena: hezkuntzaren kalitatea, eskolako ikaskuntzei dagokiena nagusiki, eskolako elkarbizitzaren kalitatearen arabera dela esaten da.

Bestalde, hezkuntza formalak eskolako bizitzan nahiz eskolan gartzten den elkarbizitzan eragina duten hainbat aldagetak aurre egin behar diela ere onartzen da. Besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan izandako aldaketak, kultura-aldaketak eta familia latinoamerikarrean gertatutako aldaketak nabarmentzen dira.

Lehenengoei dagokienez, informatikaren eta sateliteen eraginetako bat muga politikoen desagertzea da,

komunikazioaren eta informazioaren bitartez.

Juan Tedescoren ustez, hauxe da aparteko tresna teknologiko horren ondorioetako bat: kontrola eragozten du, eta pertsonen arteko truke zuzena errazten du. Horren guztiaren ondorioz, gogoeta egiteko, jendartaratzeko eta eztabaida kolektiboa gartzeko ohiko guneak galtzen ari dira, hau da, aurrez aurre komunikatzeko guneak, hitzez, emozioz, keinuz eta isilunez elikatutakoak, hala nola taldea eta familia.

Bestalde, kultura-aldaketak, herrialdeen arteko migrazio handien eta Txilen bizi diren atzerritarren kopuru handiaren ondoriozko kultur aniztasunarekin lotutako aldaketa horrek, elkarbizitzari buruzko hainbat logika eta askotariko ikuspegiak edo aurka-koakizatea ekarri du. Horrez gain, nazioen arteko gatazkak konpontzeko orduan, indarkeria gero eta handiago da, hala nola estadioetan, kaleetan, familietan eta eskoletan.

Lehen aipatutakoari lotuta, txiletar familian hainbat aldaketa nabarmentzen dira: seme-alaben kopurua murriztu egin da, bikote libreak gero eta gehiago dira, eta baita familia gurasobakarrak edo soilik aitarekin edo amarekin bizi diren seme-alabak ere (gehienetan amarekin), eta nabaria da aitaren irudiaren falta edo aldaketa ere. Aitaren eta amaren rolean ere aldaketa sumatzen da, eta seme-alabak gizarteratzeko transmititzen dituzten

edukietan ere bai.

Familiako heziketaren edukiei dagokienez, zenbait ikerketaren arabera, heldu askok uste dute ez dietela munduaren ikuspegi jakin bat erakutsi behar seme-alabei; horren ordeztan, nahi dutena hautatzeko eta beren ikuspegia sortzeko gaitasuna gartzten lagundu behar dietela uste dute. Beste alderdi bat ere azpimarratzen da: gaur egungo familian “harreman-sare bat” eratzeko joera ikusten da, baina sare hori belaunaldi berriei kultura eta morala transmititzera zuzendutako hezkuntza-funtzioan oinarritu beharrean, neska-mutilen nortasun pertsonalaren eraikuntzan oinarritzen da.

Testuinguru horretan, oso azkar aldatzen den mundu baten erronkari erantzun behar dio hezkuntzak, eta erronka horrek bestea hobeto ulertzea, mundua hobeto ulertzea, elkar ulertzea nahiz elkarriketa baketsua egitea eskatzen du; horregatik, Jacques Delors-en batzordeak Unescorentzat prestatutako txostena, hezkuntzaren lau zutabeei buruzkoa, nabarmendu nahi dugu: txosten horretan, elkarbizitzaren ikastea aipatzen da, hau da, elkarrekin bizitzen ikastea, hala, besteak eta haien historia, ohiturak eta espiritualtasuna hobeto eza-gutzeko, eta, hortik abiatuta, espiritu berri bat sortzeko, proiektu bateratuak bultzatuko dituen edo gatazka saihestezinentzat irtenbide adimentsua eta baketsua bilatzen lagunduko



duen espiritua.

Hezkuntzaren gainerako hiru zutabeek elkarrekin bizitzen ikasteko oinarriko elementuak eskaintzen dizkigute, nolabait: izaten ikastea, gizakiak bere burua erabat gauza dezan, bere nortasunaren aberastasun osoan, adierazpideen konplexutasunean nahiz konpromisoetan; egiten ikastea, etorkizunean lanerako behar duen gaitasuna eskuratzeko; eza gutzen ikastea, zenbat eta zabalagoa izan gure ezagutza, hobeto ulertuko ditugu gure inguruko askotariko alderdiak.

Begien bistakoa da maila teknologikoan, kulturean, familian eta gizartean aipatutako aldaketek eskolatan eskaintzen den hezkuntza ulertzeko modu berri bat dakartela, bereziki eskolan elkarrekin bizitzen ikasteko moduari dagokionez.

Hortaz, nola irakatsi behar dugu Txilen eskolan elkarrekin bizitzen hezkuntza formalean?

Txileko hezkuntza formalean, curriculum ofizial esplizituak, oinarriko helburuen curriculum-esparruaren, gutxieneko derrigorrezko edukien, ikasketa-programen eta zeharkako oinarriko helburuen bitartez adierazitakoak, argi agertzen du ikasleek, gainerako ikaskuntzekin batera, eskolan elkarrekin bizitzen ikastarekin lotutako ezagutzak, abileziak eta jarrerak barneratzeko berariazko asmoa. Zeharkako oinarriko helburuek, Curriculum Esparru Nazionalaren zati direla kontuan hartuta (240. eta 220. dekretuak), hainbat arloren bitartez—hazkuntza eta autoafirmazioa, prestakuntza etikoa, pertsona eta horren ingurua—, ikasleen garapen kognitibo eta prestakuntza etikoa lotzen dituzte, eskolako elkarbizitzarekin lotuta. Hala ere, asmo hori irakasleek interpretatzen eta kontzeptualiza-

tzen dute, eta ez dute beti eskolan elkarbizitza sana sustatzen. Ikasgeletako hezkuntza-praktikaren eta eskola-kulturaren bitartez ere, hau da, curriculum ezkutuaren bitartez, elkarbizitarako lagungarriak ez diren eta, batzuetan, elkarbizitza zaildu ere egiten duten mezuak transmititzen dira. Bestalde, egiaztatu da, halaber, batzuetan irakasleak ez daudela behar bezala prestatuta eskolako elkarbizitza kudeatzeko.

Horregatik, ikertzaileen taldeak Machalí Lizeoko (O'Higgins eskualdea, Txile) eskola-kultura eta eskolako elkarbizitza-giroa aztertzea erabaki zuten.

Honako hipotesi hau du oinarri azterketa horrek:

“Lotura argia dago eskolako elkarbizitzaren kalitatearen eta zuzendariek, irakasleek eta ikasleek elkarbizitza sana egiteko dituzten oinarriko ezagutzen, balioen, abilezien eta jarreraren artean”.

Hipotesi hori frogatzeko, honako esparru hauek hartu ziren kontuan: bereizkeriaren biktima, indarkeriaren pertzepzioa eta eskolako giroa, eta irakasleen prestakuntza-maila.

Ikerketarako erabilitako ikuspegiak arlo kualitatibo eta kuantitatibo hartu zituen kontuan.

Hautemandako arazoei irtenbidea emateko, “Eskolako elkarbizitza hobetzeko proiektua” proposatu da.

Helburu nagusia: Machalí-ko Lizeoko (O'Higgins eskualdea, Txile) zuzendariek, irakasleek eta ikasleek eskolako elkarbizitzarako gaitasunak garatzea.

Proiektua hiru etapaz osatutako estrategia batek laburtzen du; etapa horietako bakoitzean hainbat ekintza garatzen dira: 1. Sentiberatzeko etapa; 2. Gauzatzeko etapa; eta 3. Eraginarene ebaluazioa egiteko etapa.

1. Sentiberatzeko etapa: 1. seihilekoaren diagnostikoa

Hauek dira etapa honetako helburuak:

Hezkuntza-erakundeetan parte hartzen duten eragile guztiak eskolako elkarbizitzari buruz duten ezagutzaz jabetzea, hau da, elkarbizitza sana egiteko oinarriko balioak, abileziak eta jarrerak ezagutzea.

Hezkuntza-elkartean nagusi den lidergo-estiloa identifikatzea.

Elkarbizitzarako eskuliburua ezagutzea.

Familiaren eta hezkuntza-elkarteen arteko lotura ezartzea.

2. Gauzatzeko etapa: 2. seihilekoa

Zuzendariak, irakasleak eta ikasleak gaitzea eskolako elkarbizitzaren arloan.

Zuzendaritza-taldeak lidergo eraginkorrari buruzko entrenamendusaioak jasotzea.

Elkarbizitzarako eskuliburua testuinguruaren arabera egokitzea eta eguneratzea, irakasteko eta ikasteko prozesuko eragile guztien partaidetzarekin.

Gurasoentzako eskola-saioak egin. Eskoletako oharrak idatzi.

3. Ebaluazioa egiteko etapa: estrategia aplikatzean izandako eraginaren ebaluazioa. 3. seihilekoa

Etapa honetan, diagnostikoan aplikatutako tresna berberak aplikatzen dira: inkestak, elkarrizketak eta eskoletako oharrak.

Ondorioa

Proiektua irtenbide bideragarria da, Machalí-ko Lizeoan (O'Higgins eskualdea, Txile) eskolako elkarbizitzaren balioa sendotzeko beharrezko gaitasunak garatzen laguntzeko.

Zer garrantzia dauka familiaren partaidetzak haur eskolan?



Artikulu honetan, partaidetzak dituen esanahi batzuen inguruko ikuspegi bat ematen saiatuko naiz —dagoeneko hamaika ikuspegi daude—. Horretarako, haurren hezkuntzan hain garrantzitsua eta beharrezkoa den gai horren inguruan Loris Malaguzzi, Carla Rinaldi eta Sergio Spaggiari egileek garatutako zenbait ideia interpretatuko ditut, nagusiki. Aditu horiek hein batean zaila eta anbiguoak den kontzeptu horri zentzia eta etorkizuna ematen saiatu dira, Reggio Emiliako udal haur-eskoletako teoria eta praktika abiapuntutzat hartuta.

Gai konplexu honi heltzeko orduan, elkarren mendekoak diren hainbat esparru eta testuinguru kultural har ditzakegu: legegintzakoa, politiko eta soziologikoa, filosofikoa, psikologikoa, pedagogikoa... Idazki honetarako erreferente gutxi batzuk aukeratu ditut; horiek partaidetzaren kontzeptua kokatu eta bere oinarria finkatuko dute printzipio jakin batzuetatik abiatuta. Nire ustez, printzipiook ezinbestekoak dira ekintza pe-



Alfredo HOYUELOS
NUP-EKO IRAKASLEA

dagogikoa hezkuntza-ikuspegi zehatz baten barruan funtsatuko duen filosofia eratzeko. Helburua gai zail hau lantzeko orduan ikuspegi ez mugatzailea izan duten egile batzuen hainbat ideia jorratzea da.

Partaidetzak dituen esanahi batzuk

Partaidetzaren benetako esanahiari heltzeko orduan, anbiguotasunak eta erronkak sortzen dira. Termino labainkorra da partaidetzarena,

esanahi bakarrean bildu ezin daitekeena. Hori dela-eta, haur hezkuntzako proiektuak adierazten duen gutzia hartu behar da kontuan. Hala, heterogeneotasun semantikotik abiatuta, bere esanahia zehazten saiatuko gara. Edonola ere, eta zenbait ideia komunitatik hasteko, bi definizio emango ditut. Loris Malaguzzik honela definitzen du gizarte-kudeaketa (partaidetzaren kontzeptutik banandu ezin daitekeena): «prozesu partehartzaileen, demokratikoen, erantzukizun partekatukoaren eta arazoetan sakontzekoaren multzoa laburbiltzeko balio duen forma kulturala eta antolakuntzako... familiek, langileek, administrazioek eta politikariek adostutako borondatezko eta idealak bateratzeko hitzarmenari esker». Bestalde, Sergio Spaggiarik modu honetan adjektibatzen du partaidetzaren kontzeptua: «apur bat zehaztugabea: hezkuntza-zerbitzuak bideratzeko eginkizunean ekarpen aktiboa egiteko herritarrek (gehienetan amek) duten aukera da, beren botereak eta erantzukizunak beste norbaiten esku

utzi gabe».

Gure eskoletan, ikastetxeetako partaidetza eta kudeaketa luze eta zabal daude araututa. Baina, ikastetxe horietan, oso ordu gutxi eskaintzen zaizkie familiekiko harremanei; Europako Batasunean batez beste baino askoz ere gutxiago.

Segur aski, praktikan, partaidetza ez da hezkuntza-proiektu integratu baten zati unitarioa izatera iritsi. Zentzu horretan, partaidetza ezin da eranskin gisa ikusi; ezin da proiektuari berari, didaktikari gehitzen zaion zerbait gisa jo. Ez eta horrez gain egin behar den zerbait izan. Partaidetza, funtsean, ezinbestekoa eta egiturazkoa da; ezin da ez osagarria, ez aukurakoa izan. Nire iritziz, hezkuntza-balioen kategoriara igo nahi dugun ideia, prozesu edo jarduketako praktikako oro familiei eta herritarrei berehala jakinarazi, eta horiekin eztabaidatu behar da. Taxonomiari dagokionez, hezkuntza ezin da haurrekin egon ostean egin beharreko zerbait gisa hartu. Hezkuntza-jarreraren abiapuntua dela uste dut. Egokia da partaidetzazko uneak ikastetxeak kudeatzeko beharrezko organoetan instituzionalizatzea, baina, hezkuntza-jarreraz hitz egiten dudanean, esan nahi dut ikasgelek —banan-banan hartuta—, sarrekek, korridoreek, sukaldeek, irakasleek, laguntzaileek, bedelek eta abarrek partaidetzazko ideia hori hedatu eta praktikan jarri behar dutela. Ideia hori izan ezean, nire ikuspegitik, hezkuntzak eskolako murrueetatik ihes egingo du halabarrez. Gizabanako bakoitzak hezkuntzako partaide izan nahi du. Eta, beste gauza askoren artean, partaidetzak —behar eta eskubide gisa— pertsona bakoitzak bizi eta jardun duen sistemaren zati gisa onartua izateko aukera edukitzea esan nahi du. Partaidetzak subjektu guztien elkarrenganako konfiantza du euskari, beren trukeetan esanahi anizkunak eta partekatutak bilatzen dituztenak.

Haur-eskola «gizarte-sistema zaballean integratutako komunikazio-sistema» da. Era horretan, gizarte-kudeaketaren helburua hezkuntza-

proiektuaren edukia eta metodoa aukeratzeko lanen osagaia eta zati unitarioa da. Hala, langileen, haurren, familien eta gizartearen arteko komunikazio-harremana ezar daiteke. Pentsamolde horretan sakonduz, hezkuntza-proiektua elkartasunean eta pertsonen arteko harremanetan oinarritzen da, irismen handiko elementu kulturalak eta politikoak diren aldeetik. Eta, beraz, hezkuntzaren inguruko ideia jakin bat aktibatzen duen paradigma-aldaketa da.

Kontzeptu horien guztien sakontasuna ulertzeko, beharbada egokia izan daiteke Gadamer edo Antaki bezalako egileak berriro irakurtzea. Horien arabera, benetako esperientziak elkarriketan, dialektikan eta partaidetza partekatuan gertatzen dira; alderdiok elkarrenganako ulermeneren mugimendu zirkularra elikatzen dute, harremana eta partaidetza gure espeziearen behar sakonei dagozkien desioak direla baieztatuz.

Nire ustez, partaidetzarako aukera handienak eskaintzen dituzten eskolak ume gutxi izaten dituztenak dira; herritarrengandik gertu dauden administrazioen mende daudenak. Eta, hor, xehetasun berri bat agertzen da: haur-eskolak familiei harrera egiteko duen modua. Zentzu horretan, badira euren seme-alaben eskoletako kide izatearen sentimendua lagundu edo oztopatu dezaketen hainbat elementu. Adibidez, giroen eta

eremuen adeitasuna, ate irekiak —ideia hori umeak eskolatik kanpo abandonatzearen aurkakoa da erabat; batzuetan, lerro militarrek osatuz horietara sartu eta irten behar dira umeak—, gardentasunak, zentroaren irisgarritasuna eta ordutegi malgutasuna. Komunitate bateko kide zarela kontziente izateak bizitasun eta segurtasun emozionalaren tentsazioa sortzen du, eta horrek identitate pertsonala eta soziala eraikitzen laguntzen die haur zein helduei. «Dagozkion espezifikotasunak gaineratzen eta elkar lotzen dituen giro segurua. Printzipio gisa familiartekotasuna, elkarriketa, mugak ezabatzea eta estilo irekia eta demokratikoa legitimatzea sustatzen duen giroak, berez, familien partaidetza egituratu eta horretarako bide ematen du erabat. Eta partaidetza iragankorra eta ausazkoa ez izateko, instituzionalizatu beharra dago, bizikidetza egituratu eta zentzua eta jarraitutasuna emango dizkion antolakuntza eratu.»

Izan ere, Malaguzzik behin eta berriro errepikatu duen bezala, proiektu bat familiekin batera bideratzen eta partekatzen denean, orduan soilik existitzen da hezkuntza. Zentzu horretan, zenbait ikerketak erakusten dute hezkuntza-proiektu batean gurasoek aktiboki parte hartzen dutenean, eta familian hezkuntzarekiko sentikortasun berezia sortzen denean, orduan bakarrik eskaintzen zaiela



Familiak eskolan aurkitu behar dute beren habitat

naturala, zabala eta askotarikoa izango den partaidetzarako eta elkarrizke-

tarako eskaintza sortan.

Harreman formal eta informalen arteko lehentasunik, hierarkiarik, bat ez etortzerik eta banantzerik gabe

haurrei garapen egokia. Beraz, ezin bestekoa da partaidetza eta hezkuntza erabat integratzea; etenik eta banantzerik gabe; barrualdea eta kanpoaldea bereizi gabe. Eta ezein lekurik hezteko pribilegio eksklusiboa ez duela aitortzea. Aitzitik, hezkuntzak trukatzeko eta alderatzeko ahalmenean du sorburu. Horrek esan nahi du proiektuan ez dagoela protagonista edo erdigune bakar bat; horren ordez, haurrek, eskolako langileek, familiak eta gizarteak osatutako erlazio-sistema bat daukagu. Horrela, hezkuntza-prozesu oro elkarren mendekoak diren erlazioen sare horretan sartuko da, ezinbestean. Gogora ditzagun Batesonen ideiak: haren iritzian, terminoen aurrean, harremanek dute lehentasuna.

Argi eta garbi, ideia horrek kontra egiten dio irakasle baten gelako bakartasunari, zerbitzu eta sukaldaritzako langileen isolamendu tradizionalari. Ildo horretan, Malaguzzik behin baino gehiagotan galdetzen dio bere buruari zer-nolako gizarteratzea bizi dezakeen ume batek, bere lan baldintzak direla-eta isolatuta eta goibeldu-ta bizi den irakasle batekin, giro pobre eta apalgarrian, lehiakortasuna

nagusi denean eta gurasoak eskolatik aldentuta daudenean.

Partaidetza eta gizarte-kudeaketa hezkuntza-esperientzia burokratizatzearen aurkako defentsa gisa hartzen dira, hezkuntzako erakundeak gizarte-ehunduratik banantzearen kontrako erronka gisa. Baina, egiaz, lurraldean, hirian esku hartzeko elementuak dira, hiria haurrentzat ere bizitzeko modukoa eta demokratikoa goa bihurtze aldera. «Partaidetzak bizikidetzak demokratikoa bermatzen du... Eta Lasch-ek dioen bezala, demokrazia diferentziak mantenduz jendeari bizitzeko aukera ematen dion sistema legala da.»

Partaidetzaren kultura berri horrek elkarrizketa, bat etortzea eta bat ez etortzea, eztabaida, erantzukizun partekatua, berdina ez homogeneoak ez diren jarrerak alderatzea eta subjektibotasunekiko errespetua (trukean intersubjektiboak bihurtzen direnak) onartzen ditu esku hartze sozialaren balio didaktiko moduan; hala, bizikidetzaren dialektika sortzen du, dimentsio ideal eta posible gisa.

Partaidetza bultzatzeko, besteak beste, informazioa eskaini behar da. Familiak informazioa jasotzeko eskubidea daukate. Desinformazioa oso arriskutsua da demokrazientzat; aberastasunaren banaketa desorekatua bezainbeste. Hortaz, familien eskubidea izateaz aparte, erantzukizun etikoa eta profesionala ere bada gurasoei ikastetxean garatzen diren gertaera eta alderdi guztien gaineko informazioa ematea. Baina informazioa ezin da hor amaitu. «Kontua ez da gurasoak informazio-bileretara joatea bakarrik; bere seme-alaben hezkuntzan aktiboki parte hartu behar dute, eta parte-hartze aktibo horrek eskolako didaktikan eta metodologian aldaketak egitea eskatzen du». Informazio egokia behar bezala ematea, askotariko kanalak erabilita —askotarikoak diot, familiak askotarikoak direlako—, familiak beren seme-alaben hezkuntza-esperientzian parte hartzeko eta beren iritzia emateko bitarteko bat baino ez da. Izan ere, ezin ditugu familiakiko harremanak lanki-

detzaren erretorika moduko bat bezala hartu, familia egintza pedagogikoa era pasiboan besterik erabili ezin duen mendekoa balitz bezala.

Praktikatik begiratuta, ezin dugu partaidetzaz hitz egin «ez badugu erlazionatzen eremu eta ordutegiengan antolakuntzarekin, programazio didaktikoarekin, langileen laneko ordutegiarekin, birgaitzearekin, eztabaida kultural eta politikoa erekin, arazo ekonomikoekin». Horrek ohitura berri bat sortzen du gure buruan, bestelako pentsamolde bat, ohituta ez gauden eskola mota bat eraginez zenbaite-tan: tradizionalki, irakasleak kanpoan gertatzen zena aldentzen eta ekiditen saiatzeko ziren —birus kutsakorria izango balitz bezala—, barrukoa ez kaltetzeko.

Partaidetzak familientzat duen esanahia

Gaur egun inoiz baino gehiago, familiek hitz egin behar dugu, pluralen, alegia. Jaiotza tasa behera egiten ari da, adin aurreratuetan dauden gurasoak dituzten seme-alaben kopurua hazten ari da, planifikatu eta programatuagoak diren seme-alabak daude, ezkontza kopurua behera egiten ari da, emakumea lan merkatuara sartu da, banatzeak eta dibortzioak areagotu dira, bizi itxaropena luzatzen ari da, gizarte-sistema dibertsifikatuak daude, modak ustekabearen datzen dira, gaztetasun amaigabearen mitoa dugu... guztiek familia egitura berriak sortzen dituzte.

Aita eta ama horien arabera, guraso izatea ez da behin betiko eskuratzen den estatusa, ezpada gertatzen den zerbitzu. Ikerketa batzuek baieztatzen dute gurasoen % 74k beren hezkuntza-betebeharrak behar bezala bete ezin izateko beldur «handia» edo nahiko handia dutela.

Familiak (eta haur-eskola erabiltzen ez dutenez ere arduratu beharko gara) bakardadetik ihes egitea, anonimotasunetik ateratzea eskatzen dute. Antzeko arazoak dituzten pertsonekin biltzeko beharra eta topo egiteko nahia dituzte. Haur-eskola hezkuntza zerbitzu bat da, soziala eta ga-

raikidea, eta, horren ondorioz, gurasoek modu desberdinetan baina atsegin handiz onartzen dituzten topaketak sustatzeko leku paregabea da (bestela, familien bitartekari baliodun bakarrak bizilagunak eta peditrak izateko arriskuan eroriko gara). Hori egiteko, partaidetzarako eta bilitzeko moduak ugaritu behar dira, familia bakoitzak, gizabanako bakoitzak bere lekua, tokia eta besteekin harremanetan jartzeko bere modua aurki dezan.

Familiak eskolan parte hartzearen helburua ez da gurasoek eskolak baliatzen dituen jarrera eta eredu berberak bereganatzea. Aitzitik, bi testuinguruon jarraitutasunik ezan —haurrek modu naturalean onartzen dutena— aurkituko dugu trukearen aberastasuna eta zabaldu ahal izango ditugu gure identitatea eraikitzeke aukerak eta itzaropenak.

Baina partaidetzaren kontzeptu horrek zentzua galtzen du gurasoak kanpotarren gisan, saihestu daitekeen interferentziaren gisan hartzen bada. «Eskola publikoa guztion eskola da, eta bertan, inor ez da arrotza edo aldenduta sentitu behar, are gutxiago behar handiena dutenak, ahulenak edo desberdinenak direnak; hortaz, gizarte-kudeaketaren bitartez ere lan egin behar dugu».

Familiak eskolan aurkitu behar dute beren habitat naturala, zabala eta askotarikoa izango den partaidetzarako eta elkarrizketarako eskaintza sortan. Harreman formal eta informalen arteko lehentasunik, hierarkiarik, bat ez etortzerik eta banantzerik gabe. Eta, hain zuzen, hortxe jaio eta garatzen da, nire ikuspegiaren arabera, guztion eta guztiontzako hezkuntza.

Ideiek guraso gaitu, ikusmira eta arduratsuen ideiarekin koherenteak dira. Guraso horiek beren kultura, subjektibotasuna eta ikuspegiak baliatzen dituzte, eta beren seme-alaben, haur guztien eta gizarte-komunitatearen etorkizunaz hausnartzeko eta hura eraikitzeke eta eratzen parte hartzeke gai dira. Aukeraketa etiko horiek konfiantza eta sinesgarritasuna

ematen dute, eta parte hartzeke norberaren nahia eta zentzua areagotzen dute.

Partaidetzak Haur Hezkuntzako langileentzat duen esanahia

Langileez hitz egiten ari naiz; ez bakarrik irakasleez. Izan ere, partaidetzak ezin du inor baztertu. Denek izan behar dute partaide izateko aukera, hezkuntzako komunitate batean erantzukizun partekatu profesionala aurkitu ahal izateko.

Langileek —ia denak emakumeak dira, eta amak— munduko lanbiderik konplexu eta zailenetako baten pisua izaten dute beren gain. Eta hiru anbiguotasun mota jasan behar izaten dituzte: politiko-administratiboa, soziokulturala eta psikologiko-profesionala. Hori dela-eta, batzuetan, familia eta lan profesionala uztartzen saiatzen direnean, kontraesanak eta segurtasun-eza nagusitzen dira.

Irakasleak kudeatzaile soilak izan beharrean partaideak ere izatea nahi badugu, beste modu batera ulertu behar harko dugu askatasun didaktikoa; elkarrizketarekin, eztabaidarekin, lan-kidetzarekin, ikuspegi interpretatiboen ugaritzearekin, bat etortzeekin eta bat ez etortzeekin lotuta egongo da. Eta axiologia horren barruan hartzen du zentzua eta esanahia profesionaltasunak berak, eta trukeari eta harremanari —terminoaren zentzurik zabalenean— zeharo irekitzen zaio.

Partaidetzak haurrentzat duen esanahia

Eskolan eraikitzen diren harreman sozial eta interaktiboek eragina dute haurrengan; batez ere, haien gurasoek harreman horietan aktiboki parte hartzen dutenean. Komunikazio-sareek segurtasuna ematen diete haurrei, eta, aldi berean, harremanotan parte hartzera bultzatzen dituzte.

Idea horren azpian, aldarrikapen hau dago: haurrak ez direla inoren jabetza pribatua. Haurrak kulturaren eramaile dira, eta, jaiotzen direnetik, trukeak eragiteke eta kualitatiboki hazteke gai dira, harremanei eta par-

taidetzari esker.

Haurarentzat pozgarria da gurasoek parte hartzen dutela ikustea; horrek plazera eta segurtasuna ematen die. Eta, gainera, jokabide hori eredu bihurtzen da umeentzat. Idea horrek ez du haurtzarora isolatuta ikusten; alderantziz, lotu egiten du helduen munduarekin.

Malaguzzik behin baino gehiagotan aipatu izan du haurrak konturatu egiten direla kulturari buruzko ideia berri horretan umeen eta familien arazoei ematen zaien garrantziaz; eskolatik kanpo gertatzen dena eskolaren barruan garrantzitsua dela ikusten dute, eta horrela izango dela etorkizunean ere.

Partaidetzarekiko erreparok

Aipatu ditudan ideiak gorabehera, horrelako proiektu bat aurrera eramateko orduan, zenbait erreparo sortzen dira.

Familiak partaidetza begi onez ikusten ez dutenek zera galdetzen dute: zergatik parte hartu behar duten gurasoek ikastetxearen kudeaketan. Haien ustez, gurasoek ez daukate ezagutza profesionalik, eta beste arlo batzuetan ez da gurasoen partaidetzarik izaten. Era horretan, gurasoek fisikoki, psikologikoki eta emozionalki ikasgelatik aldentzeko muga korporatibistak jartzen dituzte.

Idea hori indartu egiten da pentsatzen baldin bada guraso eta ikaslearen artean —edo, hobeto esanda, hezitzaile, irakasle eta amen artean— botere asimetrikoko harreman bat dagoela, eta harreman horretatik artikulatu honetan defendatzen saiatzen naizen balioentzat negatiboak diren amen zein profesionalen jelsiak jaiotzen direla.

Gurasoen partaidetzaren aurrean izaten diren erreparok zerikusia dute, halaber, irakasleek beren lanbidearen inguruan duten segurtasun-ezarekin, gaiak maila profesional handia izatea eskatzen duelako, eta familien epaiketa sozialari aurre egin behar izango diotela sentitzen dutelako.

Horretaz aparte, erreparok sortzen dira gurasoekin bilerak egiteko

Partaidetzari buruzko gaia irekia da, galderez betea, eztabaidatzeko foro bat. Zer-nolako hezkuntza-estrategiak dira egokienak



partaidetzaren zentzu hori sustatzeko? Galdera horiek eta ildo horretan egin daitezkeen beste askok eztabaidatzeko bidea irekiko lukete.

beharrarekin lotuta, bileren orduak, oro har, egokiak izaten direlako gurasoentzat, baina ez irakasleentzat.

Familiak ere hainbat oztupo izan ditzakete bilera horiei begira: antolakuntzakoak (non «utzi» seme-alabak bilerak egiten dituzten bitartean?), psikologikoak (besteei beren zalan-tzen berri emateko eta epaituak izateko beldurra), nahiz prestakuntzari eta kulturari dagozkionak (profesional, aita eta ama askoren belaunaldian, tradizioa desegokia da, beren eskolako esperientzia eskola diktatorialari lotuta egon baitzen neurri handi batean).

Mesfidantzak mesfidantza, ez dezagun ahaztu zer dagoen jokoan: haurren hezkuntza soziala eta ardurasua. Hortaz, prozesu hori garatzeko beharrezkoak diren partaidetza koherentea izateko bitartekoak ezarri behar ditugu.

Partaidetza posiblea

Nire aburuz, adierazitako testu-guruguruan familien partaidetza bultzatzeak aldarrikapen sindikal eta politikoa izan behar luke. Horrela, nolabait babestu egin ahal izango genuke hezkuntza-aldiaren identitatea, hainbat arrisku badira eta. Ikus ditzagun

arrisku horietako batzuk:

-Batez ere bigarren zikloaren ondoren datorrenerako prestaketa bihurtzea, ondorengo horri garrantzi handiagoa ematen zaiolako.

-Bi urteko haurren eskolatzeko desegoki, basati eta lazarria zentro publiko eta pribatuetan: haurrak salgai gisa hartzen dituzte, eta beren potentzialtasunak eta eskubideak indargabetu.

-Zaintza eta asistentziako eredu-ekin —batez ere lehenengo zikloan— erlazionatzen den lanbidearen gutxiespena. Gure uste osoa ez da nahikoa izango, familiak —eta aitona-amonek— ez badute gure lanbidearen zentzua ulertzen eta ez badute parte hartzen. Ideia horrek eskolako mugak zeharkatzen ez baditu, haurrekin hezkuntzaren aldetik izugarriak diren gauzak egiten ari garela pentsatu arren, hainbeste arbuatzen dugun haurtzaindegia izaten jarraituko dugu.

-Eskola asko pribatizatzeke edo Estatuaren eskuetan gelditzeko arriskua —ikus autonomia-erkidegoetako egoera—. Arazo hori bera gertatu zen Italian. Reggio Emilia izan da udal haur-eskola publikoen kalitatea osorik mantendu duen eta estatuko botereari eskualdatzerik egin ez dion esperientzia bakarra. Hori estuki lotuta dago esperientziak herritarrengan duen eraginarekin eta lortutako partaidetzarekin, hezkuntza-eredu honen defendatzaileak izan baitira.

Lerro hauetan defendatzen dudana partaidetzak batez ere komunikazioan oinarritzen den pedagogia aldarrikatzen du. Komunikazioa, J. Habermas, P. Watzlawick edota J. Hernández egileek eman dioten zentzuan ulertuta. Hala, komunikazioak, ekin-tza emantzipatzailea izateaz aparte, «ezinezkoa da ez komunikatzea» axioma du abiapuntu; beraz, jarrera edo jokaera oro komunikazioa da. Pentsa dezagun zer suposatzen duen horrek Haur Hezkuntzan, eta nola interpretatu daitezkeen isiluneak, informazio falta, denboraren pean egiten diren elkarriketak—askotan ez

da nahikoa izaten—, bilera falta edo urritasuna, gurasoak ikasgeletara ezin sartzea, esperientzien dokumentazio bisualik ez izatea, haurrek (postari moduan) etxera eramaten dituzten ohar idatziak, desegokiak eta zaharkituta dauden eskolako zenbait erakunde aldatzea eta malgutzea oztopatzen duen erakundeen inplikazio urria, eta abar.


Komunikazioa harreman anizkuren izaera zirkularrekin lotuta dago, elkarrekikotasunean. Eta, prestakuntzaren aldetik, beharrezkoa da profesionalok gaitasun komunikatiboa eskuratzea. Horri esker, elkartu, harremanak izan, hitz egin eta abar egiteko aukeren teklatua eskaintzeko bide emango duten edukiak, bitartekoak eta metodologiak egokitu eta hobeto dibertsifikatuko ditugu. Hala, haur-eskolako esperientziaren alderdi guztiak bilduko dituen sistema da komunikazioa.

Partaidetza ez da amaitzen; ez da behin betiko lortzen den zerbait. Familiak aldatuz doazenez, partaidetza prozesu dinamiko eta malgua da, edonoiz berrikus daitekeena.

Partaidetzari buruzko gaia irekia da, galderez betea, eztabaidatzeko foro bat. Zer-nolako hezkuntza-estrategiak dira egokienak partaidetzaren zentzu hori sustatzeko? Nola bideratu behar ditugu gurasoen partaidetza eta kudeaketa? Zer-nolako antolakuntza fisiko, espazial, denborazko, administratibo edo instituzionalak dira partaidetza sustatzeko egokienak? Galdera horiek eta ildo horretan egin daitezkeen beste askok eztabaidatzeko bidea irekiko lukete. Zeren eta gaia, nire ustez, ez litzateke inoiz bukatutzat eman behar.

Familiak eskolako esparruan parte hartzea —eta hauxe da artikulua honen lehenengo eta azken ideia— hezkuntza-kalitateak berak eskatzen du. Zentzu horretan, gure eskolen hezkuntza-eraginkortasuna neurtzeko parametro gisa erabil dezakegu partaidetza. Nire ustez, eskolako porrot asko eta asko eskola eta familiak elkarrengandik banantzearekin eta urrutiratzearekin lotuta daude.

argitalpenak



Arrosa eta leuna

Adela Turin / Nella Bosnia



Argazki albuma

Antton Kazabon Amigorena



Lauviaren giltza

Ivan Landa

PAMIELA-KALANDRAKA

Paskualina eta elefante emeak barkaturik bizi dira, eta eguerdi-liliak eta peoniak jaten dituzte, azal arrosa eta leuna izateko. Horrez gain, kolore bereko oinetako, xingola eta lepokoak jantzen dituzte. Baina Paskualinak ez du nahi. Alegia honek axalekokeria eta itxurari ematen zaion garrantzia gehiegikoa ditu hizpide. ¥

ELKAR

Ander trantze zail bat igarotzen ari da Aintzane ezagutu duenean, hamar urte zaharragoa den erizaina. Harreman horri esker berreskuratuko du bizipoza. Egun batean Anderrek bere argazki albuma elkarrekin ikustear proposatuko dio Aintzaneri. Aurreko bikotekidearekin izandako bizipen ilunen berri emango dio. ¥

EREIN

Zientzia zenbat eta gehiago aurreratu, lehenago ikusten dugu zeinen gutxi dakigun geure buruaz. Aski litzateke haur baten irudimena, denon artean mundua hobetzeko. Nola lortu, baina, irudimenaren mundu sinestezinaren atea zabaltzen duen giltza? Hamar urteko neska batek bere eskuetan izan dezake guztion patua. ¥



Behinola

GALTZAGORRI

Z-ra iritsi da *Behinola*, 27. zenbaki honekin. Bertan, Euskal- haur- eta gazte-literaturaren etorkizunaz idatzi dute Fernando Morillok, Manu Lopez Gasenik, Xabier Mendigurenek eta Lurdes Auzmendik. Hitzontzi atalean, Iñaki Zubeldiak ipuin arabiar baten egokitapena egin du: *Bazkari ederra*. Mariasun Landak, berriz, Gazte literaturaren mugez idatzi du. ¥



Urretxindorra

Sebastien Perez / Benjamin Lacombe

IBAIZABAL

50eko hamarkadan giroturiko kontakizuna da. Mutiko iheskor eta lotsati bat da narrazioko protagonista, eta bere kideen artean tokitxo bat egiteko nahia dauka. Udalekueetan dago girotua, eta haur guztiek poematxo misteriotso bana jasotzen dutenean ikerketa dibertigarri bat hasiko dute, egiteko mistoriotsuaren bila. ¥



Arturo eta Klementina

Adela Turin / Nella Bosnia

PAMIELA-KALANDRAKA

Duela 30 urtetik gora hasi zen Turin hezkidetzari eta sexuen arteko parekidetasunari buruzko liburuak idaten, eta lan horiek gaur egun erreferentziazko dira hainbat hizkuntzatan. Arturoren eta Klementinaren harremanean ilusioa eta maitasuna dira nagusi hasieran, baina pixkanaka monotonia eta kartzela bihurtuko da. ¥

hik hasi-ren proposamena

IKASTETXEETAN MUSIKA SUSTATZEKO PROGRAMA

Piano doinuak eta jolasa uztartuz, haurrek musika bizitzea xede

Xabier Lizaso piano-jotzailea orain dela 20 urte hasi zen musika didaktikarako erabiltzen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrekin. Haurren eta gazteen sentiberatasuna indartzea eta ikasleei euren sentimendu eta barne ginen mundua ezagutzen laguntzea zuen helburu. “Do Re Ni” programa du uneotan eskuarteetan.

1987an Polonian zegoela otu zitzaion Lizasori musika hezkuntza-tresna gisa erabiltzeko ideia. Seko txundituta geratu zen kontzertuetara joaten zen ume piloarekin eta gero jakin zuen hango eskoletan musikariak kontratatzen zituztela kontzertuak emateko: “Pixkanaka ulertzen joan nintzen zergatik joaten ziren horrenbeste ume kontzertuetara eta zergatik kontsumitzen zen hainbeste kultura. Eta hemen ere antzeko zerbait egin nezakeela pentsatu nuen”.

20 urte daramatza dagoeneko Lizasok kontzertu didaktikoak ematen eta, tarte horretan, etengabe aritu da bide berri bila, ikaskuntza eta jolasa uztartzen. Helburua da musikarako zaletasuna bultzatzea eta haurrei gozaraztea: “Ezer baino lehen musika bizi egin behar da, haurrentzat hizkuntza naturala izan dadila. Haurrek



saioaren oroimen ona gordetzea ere lortu nahi da: kantari atera daitezela saiotik eta kantari segi dezatela gero; musika plazerarekin lotu dezatela”.

Yamaja txiki bat altzoan hartu eta ikastetxez ikastetxe ibiltzen da Lizaso. Programaren oinarria musika klasikoa da, horixe baita haurrei sartzea gehien kostatzen dena eta aspergarriena egiten zaiena: “Haurrei berria zaien hori landu nahi dut. Abestiak

egunero erabiltzen dituzte eskolan, ni horri balio erantsia ematen saiatzen naiz”. Horrexegatik, urtearen arabera, autoreak aldatuz joaten da. Adibidez, 2010ean, Chopinen jaiotzaren 200. urteurrena zela probestuz, berri landu zuen, 2011n Franz Liszt arrazoi beragatik, etab.

Ordubete inguruko saioak egiten ditu, ez du gehiegi luzatu nahi izaten eta haurrak gehiagoren gogoz uzten



Do Re Ni

HAUR HEZKUNTZARAKO

“Kantuak eta jolasak”

-Ordubeteko saioa

-80-100 ikaslerentzat

-ikastetxeko areto handi batean

LEHEN HEZKUNTZARAKO

“Lehiaketa bizia”

-Ordubeteko saioa

-100-120 ikaslerentzat

-ikastetxeko areto handi batean

SAIOA IKASTETXEETARA ERAMATEKO

Hainbat urtez Kutzaren bidez eskaini du Lizasok ikastetxeetan musika sustatzeko programa. Iazko ikasturtean Kutzako Gizarte Ekintzak laguntza kendu zuen eta orduz geroztik Lankuren bitartez eskaintzen du Lizasok “Do Re Ni” ekimena. Beraz, ikastetxera egitasmo hau eraman nahi duenak Lankurekin kontaktuan jarri besterik ez du (943 260 755 / lanku@lanku.com)

saiatzen da: “Izan ere, saio hauen jomugan ez dago musika, ezta musikaria ere, baizik eta haurrak daude eta euren heziketa. Horrexegatik, ikaslearen parte-hartze aktiboa bultzatzen da, ikasleengan gogoia sorraraziz horrelako ekitaldi gehiagotan parte hartzeko”.

Horrez gain, piano jotzailearen esanetan, musikaren bidez hainbat ohitura modu naturalean barnertzen dituzte ikasleek: isiltasuna, kontzentrazioa, jarrera positibo eta errespetuzkoa, aktiboki entzutea, etab. “Musikak umeen arteko harremanak oso sakon lantzen ditu, gauzak elkarrekin egiten baitira eta ez bakarka. Elkarrekin kantatzea elkarrekin hitz egitea bezala da, eta instrumentuak ere elkarrekin jo daitezke eta gainera besteak egiten duenari adi erreparatu behar zaio. Ondorioz, oso modu naturalean ikasten dute haurrek partekatzeak eta elkarlanak nolako garrantzia duten”.

Haur Hezkuntzan: saio osoan kantari

Ordubete inguruko saioan musika eta jolasa uztartuz haurren inplikazioa bilatzen du. Piano soinuaren eta kantuaren bidez partaideen abilezia guztiak jorratzen dira: arreta, kon-

tzentrazioa, imajinazioa, entzumena, ahotsa, adierazmena...

Bost musika-jolas egiten ditu, bakoitza 7-10 minutukoa, gehienez ere. Saioa jolas lasaiekin hasten da eta, pixkanaka, gero eta dinamikoagoa bihurtzen da. Amaitu aurretik erlazazio-jolas bat egiten da, irudimenari hega egiten uzteko.

80-100 umeak har dezakete parte saio bakoitzean eta tokirik egokiena ikastetxeko areto handiren bat edo gela bera da.

Lehen Hezkuntzan: lehiaketa bizi-bizi

Lauzpabost sekuentzia dituen lehiaketa bizi-bizia egiten da (5 jarduera izan ohi dira lehen zikloan eta 4 bigarren eta hirugarrenean) ikasleak bi taldetan banatuta. Haurrak jokoan erabat sartzen dira kontrako taldeak baino puntu gehiago lortzeko eta kontzentrazio nahiz arreta une hori erabiltzen da programaren helburuak lantzeko: “Lehiaketa moduko bat egiten du, baina ez norgehiagoka bilatzeko, haurrak partaide egin eta euren inplikazioa lortzeko baizik”.

Ikasleak behar bezala eserita eta isil-isilik musika entzuten hasten dira kontzertu-lehiaketaren lehen jolasetik. Bigarren jolasean, talde-lanean

egiten da indarra. Ikasleek arreta osoa musikan jartzen dute, zenbat eta hobeto entzun orduan eta puntu gehiago lortuko baititu norberarentaldea.

Hirugarren jardueran lehiakideak banaka aritzen dira, baina taldearentzat lortu behar dira puntuak. Aldi berean, taldekideek laguntza eman behar diote euren ordezkariari egokitu-ko zaizkion lan zailetan aurrera egin dezan.

Laugarren jardueran oso giro ederra sortzen da. Ez du eskatzen aurrekoek adinako ahaleginik, lasaiagoa da; hartara ikasleak energiak beteta iritsiko baitira azken jolasera, garrantzizkoenera.

Azken jolasak zeharo hausten du aurrekoaren erritmo lasaia. Sorpresaz hartzen ditu ikasleak eta horrek saioaren tentsioa handitzen du. Ahotsarekin jolas egiten da azken jarduera honetan eta partaideek abesbatza bat sortu behar izaten dute. Saioan zehar ez bezala, orain, irakasleak eurak dira musika sortzen ari direnak: “Bukaera indartsu horrek oso sentsazio ona uzten die partaideei eta gogoz geratzen dira errepikatzeko”.

Saio bakoitzeko gehienez 100-120 ikasleak har dezakete parte. Saioa ikastetxean bertan edota kultur etxe eta antzokietan egin daiteke.

atzeko atetik



Imanol UBEDA

BIDE ERTZEAN TALDEKO KIDEA

Hausterre eguna zen. Asteazkena. Hausterre egun guztiak bezala. Urteko egunik tristeena Tolosaldean. Inauteriak amaitu berri, ajeak jota egon ohi da Tolosa eta eskualde osoa.

Hausterre eguna zela esan dut. Nequak berarekin ekarri ohi duen egun heze, euritsu eta hotz horietakoa. Urtero bezala, jai eskatua nuen lantokian. Goibel zegoen giroa. Hala nengoen ni ere. Ajearen mozorroa kendu ezinean. Arratsaldeko lehen ordua zen eta etxetik ateratzea deliberatu nuen. Ez zebilen inor kalean. Eta horiek dira paseatzeko gehien estimatzen ditudan egunak.

Aterkia zabaldu eta Araneko iturritik Ibarako plazarako bidea hartu nuen. Erreka hotsa baino ez zen entzuten. Errekaren hotsa, eta haizeak Montes baserriko baratzean sortzen zuen dilinda urduria.

Plazara gerturatu orduko, ume bat sumatu nuen. Inor ez inguruan. Motxila soinean. Bakarrik egoteko txikiegia begitandu zitzaidan. Euria ari zuen eta aterkirik gabe zegoen.

Izoztua zirudien. Besoak erdi zabalik. Geldi. Berehala jabetu nintzen negarrez ari zela. Pausua azkartu eta hurbildu egin nintzaion.

Ez zebilen inor. Ibarako zubi zaharrea begiratu nuen, eta inor ez. Atari

Hausterre egunez

tabernako terraza hutsik. Plazaren beste aldera jiratu nuen burua, eta Zubiaurre aldean ere inor ez nuen bistaratu. Aterkirik gabe zegoen neskatoa, baina arropa egokia zeraman. Txanoa jantzirik. Eta negar batean. Malkoak zipritzinetan ateratzen zitzaizkion. Ehunka malko txiki.

Lau bat urte izango zituen, bost urte gehienez. Urduri jarri nintzen, umeekin ez naizelako sekula ondo moldatu. Gaizki ere ez. Baina ez dut xuxen jakiten haurrekin nola jokatu. Neskalgun ohiari entzun nion behin, umeei euren parera jaitsita hitz egin behar zaiela. Makurtu eta hizketan hasi nintzaion: “Kai-xo, zer gertatzen zaizu?”. Ahoa zabaldu orduko jabetu nintzen ez nuela galdera egokia egin. Ezin zuen erantzunarekin asmatu. Hain aztoratuta zegoen, ez zela hitz bat ateratzeko gai. Eskua luzatu nion eta bihotz zimikoa sentitu nuen. Sekula ez didate halako indarrez eskutik heldu.

“Lasai, zer zaude bakarrik?”. Gero eta okerrago ari nintzen. Lasai eta bakarrik galdera berean lotzea okurrutzea ere...

- Nola duzu izena?

- Nadia —Atera zitzaion arnasa hartu ondoren, zotin artean.

- Eta non bizi zara, Nadia?

- Etxean!

Orduan konturatu nintzen. Galduta zebilen Nadia. Ez zekien etxera nola itzuli. Hausterre eguna zen eta Hausterre egunean ez da eskolarik izaten. Gure garaian, goizean jai baina arratsalde partean eskola genuen Hausterre egunean. Nadiaren gurasoek ere hala pentsatuko zuten. Hala esango zien baten batek. Auskalo. Ikastola atarian utzi zuten behintzat, eguerdi partean. Baina eskolarik ez Ibarako Uzturpe ikasto-

lan. Hain txiki izanik ere, ikastolatik plazara jaisten asmatu zuen nola edo hala. Baina plazan lehertu egin zen. Han ere inor ez baitzebilen, eta bertako jolaslekua hutsik. Ezingo zuen ezer ulertu koitarduak. Eta ez zekien etxerako bidea.

Eskutik helduta, oinez hasi ginen, nire aterkipean. Gurera eraman eta arreba Olaiari deituko niola, egin nuen neure artean. Araneko iturritik gertu ordea, gizon bat ikusi nuen urrutira.

“Ei!” egin nion eta begira jarri zitzaizgun. “Ezagutzen al duzu ume hau!”.

Guregana hasi zen gizona. “Si, vive en San Ignacio, al lado de mi casa. Son de Marruecos”.

Gertu dago San Inazio auzoa. Eta hara zuzendu ginen hirurok. Lasaitzen hasia zen Nadia. Bere portalera iristeko 50 metro falta zirela, ordura arte estu hartutako eskua askatu eta korrika batean hasi zen. Behe barrua irekita zegoen eta korrika joan zen eskaileretan gorra. “La furgoneta de su padre no está. Habrá dejado a la cría en la ikastola y se habrá ido a trabajar. Sin darse cuenta de que hoy no hay ikastola”. Hitz horiekin agurtu zen gizona.

Hamar bat minutuz izan nintzen portalaren ondoan. Amak edo anai edo ahizpen batek irekiko zion etxeko atea.

Paseoari ekin nion berriro. Araneko iturrira iritsi orduko, Sebas osaba etorri zitzaidan burura. Uzturpe ikastola martxan jartzen lan handia egin zuten berak eta bere lagunak. 1977an erail zuten Sebas, poliziaren kontrol batean. Baina poztuko zen, ikaragarri poztu ere, Marraketxetik etorriak ziren Nadiaren gurasoek, euren alabari euskara eta ikastolaren aukera eman ahal izan ziotelako.



ESKOLAren eta FAMILIAren arteko harremanak, haurraren garapen osorako lagungarri

- * Elena Lopez de Arana eta Alexander Barandiaran. Mondragon Unibertsitateko irakasleak.
 - Hainbat hausnarketa eskolako harremanen gainean.
- * Myrtha Chokler argentinarra:
 - Haurren garapen osorako, harremanetan kontuan hartu beharrekoak.
 - Harreman pertsonalak heziketa zentroan.
 - Hezitzaileen eta familien arteko harremanak.
- * Familien harrera eskolan. Lehen eskolatzea: harrera eta egokitzapena.
 - Ategorritxo (Donostia) Haur Eskolaren esperientzia. Josune Belamendia eta Leire Garro irakasleak.
 - Antzuolako eskolako esperientzia. Axun Mujika eta Maria Eugenia Irazabal irakasleak.
- * IRUÑEko Haur Eskoletako eskolatzeko-prozesua. Ana Araujo eta Alfredo Hoyuelos.
- * Céspedes, erlazio- eta elkartzeko-gunea. Elia Martinez. Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes Haur Eskola. Katalunia.

Urriaren 18an Durangon eta 19an Donostian www.hikhasi.com

Iraupen luzeko IKASTAROAK



Urko AROZENA:
*Ametsak eta entre -
namendu mentala
zoriontsu izateko.*

HERNANIko Langile ikastolan
Larunbatetan, goizeko 9:00etatik 13:00etara
Azaroak 9 eta 23. Abenduak 14. Urtarrilak 11
eta 25. Otsailak 8 eta 22. Martxoak 8.



Marina PINTOS:
*Kontzentrazio-
teknikak eta Yoga
eskolan.*

HERNANIko Langile ikastolan
Astelehenetan, 18:00etatik 20:30era
Azaroak 4, 11, 18 eta 25. Abenduak 2, 9 eta
16. Urtarrilak 13, 20 eta 27. Otsailak 3 eta 10.

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.com



8 2013
2014
EDIZIOA

Ekin... Sortu! KOSMODISEA



Gipuzkoa
ekintzalea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Departamentuak
Departamento de Innovación, Turismo y Empleo

EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
100 EUROFAKO GIZARTE FUNTSA
PROGRAMA SOCIALEKIN



Kurrikulua Giza Funtseko
Burruntzearen Iniziatibaren
B.1. Funtseko Funtseko
Iniziatibaren Barnean

LH-DBH-Batxilergoa - Irailetik maiatzera

Irailan hasten da taldeen izen ematea eta ideia jasotzekin abentura honetan landuko diren ideiak definitu ostean eta enpresa-mentu hasian jardun ostean, Lanetan ari zireko hiru planetak eskola egutegira egokituzako denboretan banatzen dira ikasturtean zehar.

*Heziketa Zikloak - Irailetik Otsailera

Heziketa Zikloetara egokiruta dago egutegia, otsailerako praktika berriak hasi baino lehen bukatzeko, irailan hasi eta otsailan bukatuz.

Sormena



Abentura honen pinaria da. Sormena ikasturtean landuko diren ideiak zehazteko, partekatzeak baitira ikasturtean zehar landuko dituzten ideiak proposatu eta aukeratzeko dituztenak. Sormena idearen arabera behar bezalako argazkimuturak baliatzen dituzte, sormena proiektuaren planifikazioa wiki baliatzen izan dezakete eta arloko ikasturtean zehar egindako lana bidetu baliatzen auzeratzeko.

Erabakiak hartu



Kosmodisearen beste gako bat da talde lanaren bitartez erabakiak hartzeko gaitasuna bideratu nahiz dugun abenturan zehar landuko ditugun ideiak aukeratzeko orduan adibidez, edo talde bakoitzak bere lanari buruzko dior ikuspegia erabakitzeak. Talde lanaren iritzia elkarbanatu, eztabaidatu eta akordioetara heltzea ikasi behar dute.

Gogor lan egin



Estortzia bideratzen erakutsiko digun lan atsegina, egindako lanaz hara egotera garrantzitsua.

Taldekide guztiak beharrezkoak dira bakoitza eginkizun eta ardura desberdinekin.

Gora-beherei aurre egiten ikasi



Euforia, amorrua, monotonia, armonia momentuak bizitzeko ezinbestekoak dira. Denetik dago Kosmodisean, bizitzan bideak, zian eta guri ibrituak ikasturtean ikasitako bat izateaz gain bizitzeko ikasitako bat izateaz baina.

Anakastak, porrotak, pozak eta frustrazioak maneiatzen ikasitako.

Europar Curriculum-arekin bat



Balore desberdinak sormena, aurkoki-flantra, ekimena, maitasuna, talerantzia, analitiko gaitasuna, nahimenketa, hausnarketa, lidergoa, hutsgeta-erako gaitasuna, gaitasun aurre egiteko gaitasuna, gaitasuneko oinarriak zuzen bidezko baliok eta kultura ezberdinekin eta digitalaren trebetasunak bultzatzen ditugu talde lanaren bitartez.

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako diseinaturiko 2.0 abentura.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuaren ekimena, Europako Gizarte Funtseko dirulaguntzarekin.



900 840 842 • www.kosmodisea.net • info@kosmodisea.net